

# argia

2015eko uztailaren 26a | LXXVIII. urtea | 2.471 zenbakia | 3,90 euro



**PAREKIDETASUNA**  
**ZERTAN GOAZ AURRERA**  
**ETA ZERTAN ATZERA?**

# Argia Eguna 2015

## TXIKITIK ERAGITEN

OÑATI  
IRAILAK 20

### **BIZIKLETA MARTXA**

Debagoiena eskualdeko bidegorrian zehar

### **IBILALDIA**

Ingurune natural eta kulturala ezagutzeko ibilbidea

### **BISITA GIDATUA**

Aizkorri mendilerroaren bihotzean dagoen Arrikruz kobetara bisita

### **HERRI BAZKARIA**

Bertako eta garaiko elikagaiekin herri bazkaria

### **HAUR DIBERTSIOAK**

Tailerrak eta jolas hezitzaileak

### **JOLAS ALDARRIKATZAILEAK ETA HERRIKOIAK**

Nortasun agiri arrotzen jaurtiketa eta Doke jokua

### **BIZI BARATZEA**

Jakoba Errekondoren liburua komikilarien eskutik

### **IKUS-ENTZUNEZKOAK**

Bertsolariak, batukada, herrixka kantuan, zirkoa...

### **KONTZERTUAK**

Gazte nahiz helduentzako musika emanaldiak

### **AZOKA ALTERNATIBOA**

Herri eragileen eta mugimenduen azoka

### **TRANTSIZIOAK ERAKUSKETA**

"Euskal Herriko historia hurbilari begirada selektiboa" erakusketaren inaugurazioa

### **ARGIA EGUN TXIKIA Arrasaten Irailak 12an**

Txapelketa, poteo animazioa, "kanape" bazkaria, kontzertuak...





Azaleko argazkiak:  
DANI BLANCO / ARGIA  
Azala: ANTZA  
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA



ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Bego Zuza. Zuzendaria: Estixu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua, Garbine Ubeda. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. [www.argia.eus](http://www.argia.eus): Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Harpidetzak: Iraitz Agirre. Salmentak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoak: Aloan Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Berdaitz Goia, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus. Web garapena: Asier Iturralde.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxe: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580 Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: [komertzial@argia.eus](mailto:komertzial@argia.eus). Harpidetzak: [harpidetza@argia.eus](mailto:harpidetza@argia.eus). Erredakzioa: [kazeta@argia.eus](mailto:kazeta@argia.eus). Interneten: [www.argia.eus](http://www.argia.eus). Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza: Euskal Herria eta Espainia: asterokoa, 145 euro; hilean bi ale, 77 euro; hilean behinokoa, 41 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea da.



## EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak  
diruz lagundua



## Gipuzkoako Foru Aldundia

# NON ZER

2015eko uztailaren 26a, 2.471. zenbakia

## ASTEKO GAIA

**MUGIMENDU FEMINISTA** Hiru belaunaldi, hiru kontakizun.  
ONINTZA IRURETA AZKUNE / 4

## PERTSONAIA

**TYTTI THUSBERG:** «Independentea naiz, ez dut moda industrian sartu nahi». MIEL A. ELUSTONDO / 10

## GAIK

**VÍCTOR GÓMEZ PIN:** «Demokrazian bozkatzen den guztia ez da duina». MIKEL ASURMENDI / 15

**HEZKUNTZA** Jai erlijiosoetatik berezitatiko eskola-egutegi orekatuagoa. MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 18

**KOOPERATIBAGINTZA** «Kooperatibagintza zer da, erresistentzia ala alternatiba?». ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA / 19

## IRITZIAREN LEIHOA

**GREZIA ETA EUROPAR BATASUNA. ETA HERRITARROK**

**ETA POLITIKA?** GARBIÑE BIURRUN MANCISIDOR / 20

**EZUSTEKOAK USTEKO EGITEKO BIDEAN** IÑAKI ANTIGUEDAD / 22

**GASTEIZ ETA UDAL HAUTESKUNDEAK: IRABAZI GALTZEKO**

GORKA MORENO MÁRQUEZ / 23

**GORA PRO NOBIS** ASISKO URMENETA / 21

**TXANDAN** Tourra fikzioa da. JOANES ETXEBARRIA / 22

**BERTSO BERRIAK** Errezetak. ERIKA LAGOMA POMBAR / 24

## ERDIKO KAIERA

**EGUNBEREKO ALARGUNA** Loaren muin zitalak. ITXARO BORDA / 24

**GAROA KULTUR LAB** Ez dute paperik galdu.

GORKA BEREZIARTUA MITXELENA / 28

**LITERATURA** AMAIA ALVAREZ URÍA / 30

**MUSIKA** IKER BARANDIARAN / 31

**ZIENTZIA** JOXERRA AIZPURUA SARASOLA / 32

**DENBORA-PASAK** ANA ZAMBRANO / 33

**LANDAREAK** JAKOBA ERREKONDO / 34

● **BIZI BARATZEA, EMAN ETA HARTU** / 35

**DENBORAREN MAKINA** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 36

## TERMOMETROA

**ENEKO LARRARTE, TUTERAKO ALKATEA:** «Nafarroan dagokion lekua berreskuratu behar du Tuterak». KOLDO AZKUNE / 37

**JAIALDI 2015** Boiseko egunak. URKO APAOLAZA AVILA / 40

**TXANPONAREN BESTE ALDEAK** Errekurtso ekonomikotik gutxi baina sozialetik asko duen ortua. ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA / 43

**BEGOÑA GARMENDIA, AZKOITIKO UDALEKO IDAZKARIA:**

«Espediente guztiak bi hizkuntzetan egin behar al dira?».

ONINTZA IRURETA AZKUNE / 44

**FRACKANPADA** «Gasa orain atera ez arren frackingaren tentazioa hor egongo da». UNAI BREA / 46

**EUSKARA ALBISTEAK** ONINTZA IRURETA AZKUNE / 47

**EKONOMIAREN TALAIAN** JUAN MARI ARREGI / 47

**NET HURBIL** «Obeditu ala lehertu»: Europako oligarkiak ez du barkatu nahi. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

**MALTZAGATIK** XABIER LETONA / 50

# Hiru belaunaldi, hiru kontakizun

Euskal Herriko Mugimendu Feministaren kronika idatzi dute Edurne Epeldek, Miren Arangurennek eta Iratxe Retolazak (*Gure genealogia feministak* liburua). Feminista militante bakoitzak konta lezake berea. Guk hiru belaunalditako kideei eskatu diegu haien argazkia ateratzeko. Epelde eta Arangureni, Anabel Sanzi eta Maite Axiariri sei galdera egin dizkiegu: haien garaiko aldarrikapenak; mugimenduaren erakundetzea; mugimenduaren indarra eta prestigioa; jendarteak zertan egin duen aurrera; eta zertan egin duen atzera.

| ONINTZA IRURETA AZKUNE |



EKE



INIGO AZKONA



HODEI ESTEBAN

Ezkerrean, Maite Axiari (Baiona) *Gerezien denbora* pastoralean erretrataturia. 1966an Bordelen militatzen hasi eta MLAC (Abortatzeko eta kontrazepzioarako eskubidearen aldeko mugimendua) eta GLF (Baionako emazteen askapenerako taldea) taldeetan aritua da. Erdian, Anabel Sanzi (Bilbo). Feministalde-ko kidea da eta Basauriko Udaleko berdintasun teknikaria. Eskuinean, Edurne Epelde eta Miren Aranguren (Zarautz). Euskal Herriko Bilgune Feministako kideak eta *Gure genealogia feministak* liburua egileak dira.

## 1 Zein ziren zuen garaiko aldarrikapenak?

**Maite Axiari.** Garai hartako giroa aipatuko dut. 20 urte nituen 1968an eta bi urte lehenago Bordelera joan nintzen estudioak egitera. 21 urterekin ginen adinez nagusi eta estudianteen bizitegiak ez ziren mistoak, baziren alde batetik neskatoenak eta bestaldetik mutikoak. Lehenbiziko errebolta, 1967an, mistotasuna lortzeko izan zen. Bestalde, oroitu behar da kontrazepzio pilula legala bihurtu zela 1967an. 1968ko estudianteen mugimendua gai horiekin hasi zen Frantzian.

Hortaz gain, emakumeen askatasuna alor guztietan aldarrikatu genuen: lehenik, familietan eta adiskideen artean etxeko lanak partekatzea. Bigarrenik, autonomia ekonomikoa lortu: gure ofizioa hautatu nahi genuen, estudioak egin... Ekonomikoki independentzia lortzea biziki inportantea zen enetzat eta denbora hortako neska gehientzat... esposatzen baginen ere. Frantzian, 1965etik goiti bakarrik lortu zuten emazteek haien kontu korrontea ukaiteko eskubidea, senarraren baimenik gabe. Urte berean lortu zuten ofi-

zio bat hautatzeko eskubidea, laneko kontratu bat izenpetzea senarraren baimenik gabe! Hirugarrenik, gure buruen jabe nahi genuen izan, neskek ez genuen gure amak bezala bizi nahi. Laugarrenik, lanean soldatak igoalak nahi genituen, eta hortakotz legeak kanbiatu behar ziren. Bosgarrenik, astialdian: lehen, emazteak bakarrik ateratzen baziren, huts bat sentitzen zen, ez bazen gizonik taldean ateratzeko. Ez zen hain ontsa, gutxiesten zen. Hori aldatu dugu. Seigarrenik, gizonen boterea agertzen zen alde guztietan: talde politikoetan, sindikatuetan. Botere jokoak ziren gizonen artean ere, baina bereziki gizon eta emazteen artean. Postuak, ardurak, aiseago hartzen zituzten gizonak. Aldatzen ari da, baina bada oraino egiteko! Zazpigarrenik, kontrazepzioa eta abortua: MFPFri (Emazteen mugimendua eta familia plangintza) esker, pilula lortu zen legalki 1967an. Legea gauza bat da, baina lan anitz zegoen egiteko mentalitateak aldatzeko, bakoitza bere buruan libre izateko, noiz ukango duzun haur bat edo ez ukaitea ere hautatzeko. “Gure gorputza gurea da”, erraten genuen, eta abortatzeko eskubidea ere aldarrikatu genuen.

**Anabel Sanz.** Basauriko mugimendua oso indartsua zen eta buru-belarri sartu nintzen, erabat liluratuta, institutuan hasi bezain pronto. Nerabetan, hormonak aztoratuta, gorpuzari eta sexualitateari buruzko mezua, jarrera eta diskurtsoa ikaragarria iruditzen zitzaidan. Sexualitatea gai ahaztezia izan da.

Lana eta lanaren sexu banaketa, ibilbide luzea izan duen gaia izan da. Denboraren erabilera edo zaintza, gure garaiko gaiak izan arren, gaur egun ere lehenasunezkoak dira. Indarkeria matxista, abortua, elkartasun feminista, sexu aniztasuna, identitatea eta feminismoaren subjektua gure agendan daude betidanik eta betiko.

**Miren Aranguren eta Edurne Epelde.** Gu hasi ginenean, adierazteko modua emakumeen eskubideen alde egitea zen. Emakumeen Mundu Martxak eskubideen aldarrikapenerako tresna oso baliagarriak ziren. Pobrezia eta indarkeria sexista izan ditu oinarri, eta horiek izan dira gure jardunaren oinarri ere. Pobreziari tiraka baserritarren egoeraz, lan feminizatuez, gazteen egoeraz, migrazioen eraginaz, zaintzaren krisiaz... jarduteko aukera izan dugu. Indarkeriarekin berdin, osotasunean landu dugu (ez etxekotzat hartuta) eta alternatiba landu dugu: auto-defentsa feminista. Mundu Martxari esker hasi ginen, adibidez, erailketak kalean salatzzen.

### ② Zer iritzi duzue mugimenduaren erakundetzeaz?

**Maite Axiari.** 1981ean Frantzian presidente hautatua izan zen Mitterrand sozialista eta ezker mugimenduetan esperantza bazen, pentsatuz gauzak aldatuko zirela aiseago sozialistekin. Bestalde, anitz denbora pasa genuen militantzian, eta mugimendua pixka bat utzi genuen.

Emazteen Eskubideen Ministerioa sortu zen memento hortan eta ofizialtasun horrek emazteen egoera aldatzen ahal zuen. Horrek, ene ustez, alde batetik indartu ditu emazteen eskubideak jendarte guzian, baina bestaldekik, ez du emazteen askatasunaren mugimendua aski sostengatu, eta emeki-emeki apaldu da.

**Anabel Sanz.** Oso nabaria izan da: feminismoak proposaturikoa instituzioek hartu dute beretzat, eta urardotu ondoren, berdintasun bihurtu dute.

Egoera ez da beti berdina, eta ikuspuntu teknikoa eta politikoa borrokan daude. EAEn behintzat, teknikoki feminismoa dezente sustatu da eta nabarmena da. Baina horrek ez du esan nahi politikoki jarraitzen gaituztenik. Adibidez, Emakundek, arartekokak eta pasa den legegintzaldiko Gipuzkoako Foru Aldundiak urtero egin dute bat Hondarribiko alarde mistoarekin, baina Emakunderen alderdiak, EAJk, alarde tradizionala babesten du.

Zaintza partekatua da beste adibide bat. Emakundek adierazpen oso garbiak egin arren, ez dute ezertarako balio, ez orokorrean, ezta bere alderdian ere. Feminismoa alderdien agendan dago, komeni zaienean. Hala ere, feminismoak gauzak aldatzea posible dela agerian utzi du.


### **Miren Aranguren eta Edurne Epelde.**

Hasieratik izan da Bilgune Feministan gai garrantzitsua. Azken urteetan gertatu denaren kontakizun amankomunik ez dugu. Kontua ez da feminismoaren instituzionalizazioa, baizik eta feminismoak erakunde publikoetara zer? Udaletako kontseiluetan parte hartuko al dugu? Erakundetzeak alde onak eta txarrak izan ditu. 1990eko hamarkadan erakundeek garrantzia hartu zuten eta mugimendu feminista militantez hustu zen. Erakundeetan ari den feministak ez dauka talde feministak daukan askatasuna. Gauza oso interesgarriak egin dira erakunde publikoetatik, ezin dituzu guztiz alde batera utzi. Herri batzuetan oso erraza zen udal kontseilura ez joatea eta beste batzuetan ez hain erraza. Egokitzen joan behar izan dugu.

Feministen profesionalizazioak kategoria berri bat sortzea ekarri du: “Dakitenak” eta



## Hautatu irudi bat



### MIREN ARANGUREN ETA EDURNE EPELDE

*“Zureagatik borrokatu ezazu kanpainako gidaren azala da. Bizkaiko Etxe Langileen Elkartek eta Bizkaiko Emakumeen Asanbladak egin zuten kanpaina 1990eko hamarkadan. 1985eko dekretuaren aurretik etxeko langileen eskubideak jasotzen zituen ezer ere ez zegoen, ez lan hitzarmenik, ez lan baldintza duinik... Legedian jasotako eskubideak zabaltzeko lan pedagogiko handia egin dute, batik bat Bizkaian. Sekulako lana erabat ikusezina den egoera, lan baldintzak, gatazkak, emakumeen arteko bereizkeria egoerak erakusteko. Etxeko langileen borroka feminismoan erdi-erdian dauzkagun gatazkak mahai gainean jartzen ditu: klase arteko botere harremanak, zaintza...”*



### MAITE AXIARI

*“Ez dut aukeratu talde baten argazkia. Hautatu dudana ez da hemen erabilitakoa bakarrik, ezta Frantzian ere soilik, mundu mailakoa da eta hortakotz hautatu dut, munduko emazteen mugimenduaren sinboloa baita, eta emazteen askatasunerako mugimenduaren aniztasuna honela azpimarratu nahi nuke. Ene ustez, hori inportantea da, alderdi batekoa izan gabe. Emazteen mugimendua independentea nahi izan dugu”*



### ANABEL SANZ

*“Abortuari dagokion argazki bat aukeratu dut. Abortua oso garrantzitsua izan da feminismoaren historian. Alde batetik, emakumeon gorputzari lotuta dagoen zerbait delako, eta patriarkatuaren eginkizun inportanteenetarikoa gure gorputzak, emakumeonak, eskuratzea izan delako. Beste aldetik, abortuaren gaiak feminismoaren ibilbidearen gorabeherak bistaritzen dizkigulako oso argi: izugarrizko esfortzuarekin lortzen dena, di-da batean desagertu daiteke.*

*Bestalde, El Salvadorren oraindik, 16 emakume daude abortatzeagatik kartzelan, eta ezin dugu ahaztu”*

## MUGIMENDU FEMINISTA

“ez dakitenak”, feminista adituak eta ez adituak. Lanbide bihurtu da. Lehen feminismoa kalekoa zen eta orain espazio gehiagotara zabaldu da. Oso ondo, baina kalekoa galtzen ari da.

### 3 Indarrez nola dabil?

**Maite Axiari.** Apal atzematen dut mugimendua, beharrik gazte batzuek elkarte batzuk sortu dituzte, eta badakite emazteen eskubideen alde lan egin beharko dutela hemendik goiti.

Halere ohartzen gara, mugimendua ez bada bizi ere lehen bezala, bere hegoak ez direla ebakiak izan. Zerbait gertatzen bada, berehala izaten ahal da oldartzea. Adibidez, aurten Frantziako Lan ministroak lege bat aldatu nahi zuen: urtero enpresa guzkiek badute obligazioa gizonen eta emazteen laneko baldintzen diagnosis egiteko eta oraingo ministroak obligazio hori kendu nahi zuen. Lege horretan parte hartu zuen ministro emazteak internet bidez jendea abisatu du eta berehala bildu ditu sinadurak.

Hortakotz, 2000. urtetik Euskal Herriko Emazteen Kolektiboarekin gauza tiki batzuk antolatzen ditugu.

**Anabel Sanz.** Euskal Herriko mugimendu feminista bizirik eta oso indartsu dago, eta Estatukoa ere bai. Baina gurea gorenean dago, momentu honetan formatzeko aukera ugari daude. Agian, formatzeko lekua aldatu da, nire garaian talde feministak besterik ez geneuzkan. Gaur egun, ordea, masterrak daude, jabeakuntza eskolak eta abar. Teoria feminista ikastea eta ezagutzea inportantea da, baina, hori baino askoz garrantzitsuagoa da argi izatea aktibismo politikoa ezinbestekoa dela.

Gainera, bestelako jendea agertu da, feminismoaren (edo elkartasunaren, ekologismoaren...) kontsumitzaileak, hitzaldietara joaten dira, eta ondo badatorkie manifestazio bate-

ra... Baina ez daude taldeetan eta ez dute buruan nola egin gauzak aldatzeko. Jarrera horrek kezkatzen nau.

Orokorrean gauza asko, politikak eta oso politikoak egiten ari dira: berrienak Klitto proiektua, gorputz grafiak, feministen arteko eztabaidak, Emakumeen Mundu Martxa, Alternatiben herria eta abar. Hurrengoa, Euskal Herriko Topaketa Feministak izango direla espero dut.

### Miren Aranguren eta Edurne Epelde.

Kopuruz ez dakit lehen baino gehiago edo gutxiago garen, baina belaunaldi berria oso indartsu dator. Formazioa asko garatzen ari da. Feminismo kontsumitzaileak kezkatzen gaitu. Formaten, jasotzen, ikasten ari gara... inteligentzia feminista ondo dago, baina praktikan ez bada gauzatzen? Hasteko, gure garaian, gosea gutxiagoren artean zegoen, eta askoz autodidaktagoak ginen: txostena pasa eta denon artean eztabaidatu. Burua praktikan genuen gehiago.

### 4 Ba al du prestigiorik?

**Anabel Sanz.** Ez dut uste prestigiorik lortu dugunik, handirik ez behintzat. Azken finean, genealogia feminista ez da onartzen.

### Miren Aranguren eta Edurne Epelde.

Feminismoak autoritatea irabazi du. Mugimendu sozialen aldarrikapen nagusietan erdigunerago jarri da aldarrikapen feminista, genero ikuspegia akademian garrantzitsua da, ikasketa feministak daude, hezkuntzatik, komunikabideetatik feminista gisa deitzen gaituzte. Lehen guk joan behar genuen.

Gu hasi ginenetik txiribuelta eman du, harrigarria. Aliatutzat geneuzkan emakumeetan eman da aldaketa batik bat. Emakume bertsolariek, artistek, kirolariek kontzientzia hartzea lortu dugu. Bakoitza bere eremutik ari da. Lehen atea itxita zegoen.

 <p><b>GARRAXI</b></p> <p><b>TABERNA</b></p>	<p><b>GARRAXI JATETXE</b> <b>BEGETARIANO, BEGANOA</b></p> <p><b>Eguneko menua 11 €</b> <b>Eguneko platera 8,5 €</b></p> <p>Aste buru eta gauetan karta, entsaladak, arrozak, pizzak, guakamole eta askoz gehiago..</p> <p>Tejeria kalea 9, 20012 Donostia · Gipuzkoa ☎ 943 27 52 69</p>	
---	---	---

## MUGIMENDU FEMINISTA

### 5 Zertan egin da aurrera?

**Maite Axiari.** Anitz gauzetan, ez ditut denak aipatuko baina. Lehenik, matxismoa gehiago mespretxatzen da jendaratean. Bigarrenik, emazteen independentzia ekonomikoan. Hirugarrenik, bakarrik bizitzeko eskubideetan. Laugarrenik, homo eta lesbianen eskubideetan. Bosgarrenik, politikan kuotak ezarriak izan dira.

Kontrazepzioarentzat, abortuarentzat, politikarentzat, lanarentzat... legeak aldatu ditugu, baina atxiki behar dira, eta hobetu.

**Anabel Sanz.** Gauza askotan, legeak adibidez, baina ez dira betetzen. Politika publikoak, baina ez daude gobernuan daudenen agendan, edo ez dira behintzat lehenetasun, bestela zerbait gehiago egingo litzateke indarkeria matxistaren kontra, esaterako.

**Miren Aranguren eta Edurne Epelde.** Feminismoak ideologia eta proiektu politiko bezala, gero eta toki gehiago dauka bestelako jendarate eraikitze bidean. Bide oso luzea dugu, baina lortu dugu tortillari buelta ematea; 1990-2000n inorentzat ez zen beharrezkoa feminismoa, modaz paseak ginen, tesuingurutik kanpo. Emakumeak dauzkagun eskubideen kontzienteago egin gara. Ez gara konformatzen patriarkatuak eskaintzen digun patuarekin. Gure interesak gero eta erdirago jartzen ditugu.

Dena dela, oso zaila da esatea zertan ari garen aurrera eta zertan atzera. Mugimenduak aurrera egin du argi eta garbi. Gizarteak aurrera egin duen ala ez esatea zailagoa da.

### 6 Zertan egin da atzera?

**Maite Axiari.** Bortiztasuna ez da apaldu eta beharbada hedatzen ari da. Bestalde, denak ez dira ohartzen emazteen bizia aldatu eta hobetu dela alor batzuetan, eta gazteek ez dakite aski nola aldatu diren. Horregatik inportantea da –*Gure genealogia feministak* libu-

rua du eskutan– hau egitea. Eskerrak liburu hau idatzi dutenei. Neskak libertate gehiagorekin bizi dira, baina libertate hori ez badute lantzen eta zaintzen, galtzen ahal dute. Beharrik libertatea dastatu duzularik ez duzu gibelera joan nahi!

**Anabel Sanz.** Arazo bat da berdintasunaren ameskeria, legeek eta politika publikoek ematen dute benetan egiten ari dena baino gehiago egiten ari dela. Baina, arazo handiena duarik gabe matxismo berria da, gizon batzuk oso haserre daude betiko pribilegio batzuk galdu dituztelako eta antolatzen ari dira gure kontra egiteko.

Indarkeria matxistaz ari garela, arlo batzuetan aurrera egin dugu, baina berdintasun politika publikoak martxan jarri zirenetik urte asko pasatu dira eta erasoak eta hilketak ez dira jaitsi. Jendaratearen pertzepzioa da, ordea, baliabide gehiegi erabiltzen dela.

**Miren Aranguren eta Edurne Epelde.** Sexismoan. Feminismoa ari da esaten gizona-emakumea dikotomia puskatu behar dela eta umeak sekula baino neskeago eta mutilago dira. Katalogoak inoiz baino arrosagoak eta urdinagoak. Atzerapausoaren adierazle garbia da. Gaur egungo neska gazteen “begiratu nazazue” hori adibidez. Neskek 4 urterekin amaren arropa igoala daukate.

Aske garela sinetsarazi digute, baina hala da? Adibide pare bat. Lehen emakumeak ez zuen sexuaz gozatzeko aukerarik, baina orain zortzi orgasmo lortzeko gai izan behar dugu! Hori aske izatea da? Etxetik kanpo lana egiteko aukera daukagu, baina emakume asko gaizki sentitzen dira etxea garbitzeko astirik ez daukatelako. Aske gara? Aurrera eta atzera egin dugu. Aukera batzuk ditu oraingo emakumeak, baina horien truke bestelako zailtasunak ere bai. Eta beste adibidetxo bat: zuk jantzi galtzak lasai, baina ipurdia bistan duzula ibili beharko duzu, hotza pasatzen. ■



**TRAZOLA**

**TXAKOLINA, SAGARDO NATURALA ETA FRUTAK**

Trazaola Baserria, 36 - Iurreta (Bizkaia)  
☎ 946 816 044 - 685 716 044 - isasitxakolina@hotmail.com






# EUSKAL OROIGARRIA

# MAKILA

Alberdi



- Opari berezietarako
- Pertsonalizatuak
- Prezio aukera desberdinak



 **argia**

Eskaerak:

Zirkuitu Ibilbidea, 2 - Industrialdea, 15  
20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)  
© 943 371 545 - denda@argia.eus

[www.argia.eus/denda/makilak](http://www.argia.eus/denda/makilak)



# «Independentea naiz, ez dut moda industriari sartu nahi»

Diseinatzailea da. Alabaina, ez nolanhiko moda du helburu. Moda jasagarria egiten du berak, Finlandian sortu eta gurean erroturik bizi den artistak.

| MIEL A. ELUSTONDO |

Argazkiak: Dani Blanco

Moda diseinatzaile eta artista plastiko zara, eta ez dakit txanpon beraren bi alde ez ote diren ere...

Sormenak biltzen ditu bi lantegiak, bi eginkizunak. Moda diseinatzailea naiz, bai, baina, bereziki, moda jasagarriaren diseinatzailea, eta horixe da nire ezaugarri behinena, ez moda, ez diseinua, diseinu jasagarria. Hala ere, modari lotuta baino, diseinu eta arteari lotuta ikusten dut nire burua. Neure eskuen bidez gauzak sortzen eman dut bizia. Beste aldetik, artisautza eskolan lehenengo, eta unibertsitatean gero, zazpi urteko ikasketak egin nituen Finlandian, eta hango diseinu eskolatan garrantzi handia eta denbora eskaintzen diote edozein diseinu motari, dela altzariak diseinatzea, dela platerak, dela... Eta arte asig-natura inoiz ez da falta izaten, beti izango da arteari buruzko ikasgairaren bat: arte teknikak, artearen historia, diseinuarena... Uste dut horregatik dudala artea egiteko gaitasuna, horregatik egiten dudala artea, nahiz eta nire titulu ofiziala moda diseinatzailea izan.

Ikasketa amaierako proiektuan, feltrozko berokia egin zenuen Finlandiako artile kardatuz egina.

Bai, horixe egin nuen, baina, finean, eskultura egiteko bidea nuen feltroa, eskuz lantzea planteatzen nuen nik. Txikitandik ekarri dut materialak eskuz lantzeko abildadea. Elurretan, adibidez, horretan jarduten nuen, eskulturak egiten. Elurra, izan ere, oso da moldaer-razaz. Etxean ere, amak hainbat material jartzen zizkidan eskura, eta ni han ibiltzen nintzen, josten, brodatzen, bata besteari lotzen... Amona ere beti ari zen horretan, beti zuen zerbait esku artean: kakorratza, puntua... Inguruan bagenituen eskulan artis-

tak. Bazen giro hori. Ama, berriz, laster konturatu zen nik erraztasuna nekarrela, eta sormenaren bidea bultzatu zuen nigan. Barrutik zetorkidala esango nuke. Bokazio hitza egoki dator kasurako.

Ekodiseinatzaile zarela ere irakurri dugu.

Hori oso gai zabala da, eta ez dakit nondik hasi ere! Ekosistemaren barruan hainbat gauza sartzen dira, eta nik, adibidez, *upcycling*-a egiten dut. Baliorik ez duen gauza bat hartzen dut –izan uhalak, izan bigarren eskuko oihalak...–, eta gauza berria egiten dut. Niri dagokidanez, ikuspegi soziala dut beti gogoa. Esan nahi dut, nik neuk egiten dut produktuzituen dudana. Batzuetan, kooperatiba batekin elkarlanean ariko naiz, inorekin kolaborazioan, baina nire kolaboratzaileak ondoan ditut, auzoan bertan. “Zero kilometro” kontzeptua baliatzen dut: ez dut garraio-biderik erabili behar, oinez noa, oinez nator, neure estudioan egiten ditut produktuak, kanpora bidaltzen ibili gabe. Lehengaia ekologikoa da beti.

## NORTASUN AGIRIA

**Tytti Thusberg** (Mikkeli, Finlandia, 1969). Diseinatzaile eta artista plastikoa ([www.tyttithusberg.com](http://www.tyttithusberg.com)). Txikitatik nahi izan zuen eskuez baliatu, eta horretara bideratu zituen ikasketak Kuopioko unibertsitatean. Harrezkero, artista eta moda diseinatzaile da, erdibana. Dena den, jasangarritasuna da Thusberg egiten duen modaren oinarri. “Tytti Thusberg” eta “Slowbag” ekodiseinu markak sortu ditu, eta sortzen bezain aktibo da bere ikuspegia zabaltzen. Bere lana omen du hori ere, eta batere estresik gabe egiten omen du, mantso-mantso. “Ezin, bada, slow aldarrikatu eta estresatuta ibili!”.









Nondik dator gauzak egiteko molde hori, baliatzen duzun kontzeptua?

80ko hamarkadan hasi zen mugimendua zabalitzen. Joan den bost urte honetan asko zabaldu da. Orain dela hogeitun urte egin nuen nik nire lehenengo ekodiseinua. Ordu arte, bigarren eskuko oihalekin edo industri hondakinekin egiten nuen lan. Aspalditik ari naiz ni horrela lanean, baina lan egiteko modu horrek ere izenen bat behar, eta “moda jasangarria” izena eman diote. “Moda ekologikoa” ere bai.

Zenbait dendaren erakusleihatetan ikusita nago industri hondakinez egindako berokiak.

Industria ere sartua dago mundu horretan, bai. Ni artisaua naiz, baina enpresa asko ikusten ditut moda ekologikoaren arloan lanean. Askotan ez dago bereizterik moda ekologiko edo jasangarria den, ala ez. Industria oso material sofistikatu eta teknologikoa erabiltzen ari da moda ekologikoa egin nahi horretan. Esate baterako, material bat, ezaguna: kotoia. Moda jasangarriaren diseinatzailea ez da kotoia erabili zalea. Izan ere, badaki kotoia prozesatzea oso gauza kutsagarria dela: ura, pila behar da prozesuan; pestizidak, ez gutxi; langileen lan-baldintzak, eskasak ohi dira. Gisa horretan kotoia erabiltzea guztiz debeatuta dago. Kotoia erabili nahi izatekotan, ziurtagiriduna behar du.

## Mikkeli

**“Finlandia hegoaldean da Mikkeli, nire jaioterria. 30.000 bizilaguneko hiri txiki bat zen, lasaia. Etxeko atea ireki orduko ginen basoan. Udan, egun osoko argia dute, bizpahiru orduko ilunpea izan ezik. Neguan, alderantziz, bostsei orduko argia!”**

Janzteari dagokionez, zein genituzke material egokienak?

Bada, oraintxe, poliesterre omen da material ekologikoa. Niri ez zait askorik gustatzen, ez duelako transpiratzen, eta hori nekez izango da gauza ona inoren organismoarentzat. Hala ere, kalitate ezberdineko poliesterrek daude. Dendetan poliesterrez egindako arropa asko ikusten da. Kotoia ere hor dago, esan dudanez, baina gutxi da ekologikoa kotoietan. Indiatik ekarria da, edo Pakistandik. Dena den, moda jasangarria izan edo ez, inor ez dago bekatutik libre. Oso zaila da tranpa saihestea.

Europa iparraldeko herrialdeetan sentiberatasun handiagoa dago moda jasangarri eta ekodiseinuaren inguruan?

Ez dakit, bada. Egia da Finlandian jaso nuela kezka, baina topikoa ere bada Europako iparraldeko herrialdeen kontzientzia eta gainera. Hemen oso jende kontzientziatua ezagutu dut. Ez pentsa Finlandian ere denak kontzientziatuta daudenik! Han ere, hemen bezala, batzuk bai eta besteak ez. Hala ere, Finlandian ingurumena zaintzeko mugimendua handia dagoela esango nuke. Txikitatik erakutsi digute horretan. Adibidez, artean haurrak ginela, elurra urtzen hasten zenean, irakasleek basora eramaten gintuzten udaberriro, basoa garbitzera, zaborra jasotzera!

Elurrak zikinkeria estaltzen bazuen ere, zaborrik ez zegoela botatzerik erakutsi nahi ziguten. Oso ariketa interesgarria iruditzen zait, umeek ikas dezaten...

Moda jasangarriaren barruan, jantziak elaboratzen dituzu, zabaltzen dituzu, eskaintzen, arte erakusketak egiten.

Denetarik egiten dut, bai. Sasoi batean, artea besterik ez nuen egin, baina laster hasi nintzen produktuak ere egiten, eta antzerki munduan ere lanean; jantziak egiten, bistan da. Oso konbinazio egokia iruditzen zait.

### Nola jantzen gara hemen?

Finlandiarekin konparatuz gero, ondo, askoz hobeto! Dena den, han askoz ere nabarmenagoak dira tribuak: batean heavyak, bestean bestelakoak... Esaten dute hemen ilun jantzen ote garen, eta denok berdin, baina edozein lekutan da berdin, globalizatuta dago. Kolore iluna dela-eta, adibidez, nik gehien saltzen dudana produktua kolore beltza da. Inork erabaki behar duenean, beltza aukeratzeko du, edo grisa; batzuetan, gorria edo urdina ere bai, baina laranja, esate baterako, oso gutxitan. Eta horrela da leku guztietan. Diseinatzaileen lana aztertu eta horixe ikusiko duzu, denek ere oinarrizko gamara jotzen

### Enkarguak

**“Ez zait gustatzen enkarguzko janzkirik egitea. Inoiz egin dut, baina gutxitan. Oso prozesu berezia da hori. Psikologo ere izan behar da inori janzkia egiteko! Eta nik nahikoa dut neure buruarekin! Kar, kar...”**

dutela, eta batzuetan, oinarrizko gama horren gainean koloreak sartzen dituztela.

Ilun eta berdin jantzen da leku guztietan...

Ez hemen bakarrik! Zoaz Madrilera. Autobusean, beltza, grisa, beixa inoiz... Inork kolorea baldin badu, harrigarria ere bada batzuetan. Ni ari naiz, baina nik neuk beltza jantzen dut askotan eta askotan! Kar, kar...

Eskuko poltsak ere egiten dituzu zuk, moda jasangarriaren barruan.

Bai, industri hondakinez eginak. Autoko segurtasun-uhalak baliatzen ditut horretarako, adibidez, edo autoen jarlekuak tapizatze-ko larrua. Kalitatea zaintzen dut, eta ondo egiten saiatzen naiz!

### Slowbag duzu marka.

Ezaguna da slow mugimendua. Orain dela hamar urte baino gehiago, proiektu artistikoa egitea bururatu zitzaidan, eta Gipuzkoako Diputazioaren laguntzaz egin nuen: *Slowfashion moda mantsoa* izendatu nuen. Garai hartan ez nekien slow mugimendua modan zegoenik ere. Banekien slowfood mugimendua ere bazela, baina besterik ez! Diote 2007an sortu zela mugimendua. Bada, hiru urte lehenago slow proiektua egina nuen nik! Bizimodua



**BULTZA KAZETARITZA INDEPENDENTEA  
EGIN HARPIDETZA**

📞 943 371 545 • [harpidetza@argia.eus](mailto:harpidetza@argia.eus) • [www.argia.eus/harpidetza](http://www.argia.eus/harpidetza)

 **argia**



**Artista**

Artista hutsa dugu Tytti Thusberg. Donostiako Egia auzoan duen tailer txikian sartu orduko ageri da haren sormenaren indarraren emaitza diren eskultura, janzki eta poltsak, ekodiseinu orijinalak. Sasoi bateko artisauen gisan, bertan ematen ditu lanordurik behinenak, huraxe du laborategi, handixe irte ten dira bateko eta besteko biltzar, jardunaldi, topaketa eta askotariko foroetan zabaltzen dituen ideiarik landuenak. Artista petoa.

lasaiago hartu behar dela, alegia, ez orain bezain korrika eta presaka. Eta berdin, moda munduan. Ez dakit dakizuen, baina, gaur egun moda industriako diseinatzaileek urtean lau bilduma ez, hilean egiten dute bat! Gehiegizkoa da. Oso ziklo azkarra da. Diseinua egin eta handik bi astera dendan prest dago janzkia!

**Eroslearentzat ere azkarregi.**

Bai, noski. Askotan joaten naiz birziklatze zentrorra, eta galdetu izan dut: “Zenbat arropa jasotzen duzue hilean Gipuzkoan?”. Erantzuna, “Batez beste, 200 tona!”. 200 tona hilean, Gipuzkoan! Hortik atera kontuak! Eromena da! Industriak produzitzen du, guk kontsumitzen dugu, eta berehala botatzen! Ikertu dutenez, batzuetan, hiru aldiz jantzi eta bota izan du arropa jendeak. Horregatik diot, bada, eromena dela! Ez dut gurpil horretan sartu nahi, hasieratik izan dut garbi horrelako modarik ez nuela egin nahi, ez nuela moda industrian sartu nahi. Independentea naiz, eta ondo doakit, hainbat arlotan ari naizelako lanean.

1996an etorri zinen Finlandiatik Euskal Herrira. Gurean, sasoi batean, “Euskandinavia” zuten batzuek amets. Oraindik orain esan didate, berriz, Europa iparraldeko herrietan dela jendea zoriontsuen.

Ez dakit, bada! Nire senarrak esaten du hemengoak direla zoriontsuenak! Kar, kar... Eta nola neurtu behar duzu zoriona? Ikerketa batzuek esaten dute jenderik zoriontsuena Brasilen duzula, faveletan... Absurdoa iruditzen zait! Finlandiakoa, adibidez, oso gizarte iluna da, arazo asko ditu gordean, ez dira azaltzen, baina hor daude arazoak. Nik handik irten eta beste leku batzuk ezagutu nahi nituen. Eta ezagutu nituen, Donostiara etorri nintzen arte. Ordurako, artea zen nire lana. Estudio bat hartu nuen errentan Artelekun, eta feltroarekin lanean segitu nuen, hondakinak hartu eta haiekin esperimentatzen, janzki itxurako eskulturak egiten. Bestalde, osaba ere

**Jantzi koloretsuak**

**“Beraien kulturaren arabera jantzen dira, jantzi politak dituzte, guri gustatzen zaizkigunak, koloretsu dira kalean. Baina Afrikan, adibidez, gero eta gutxiago jantzen dituzte jantzi tradizionalak. Europatik bidaltzen dizkiegun bigarren eskuko jantziak jantzen dituzte, eta oso kaltegarria iruditzen zait. Alde batetik, gehiegi produzitzen dugula esan nahi du horrek, eta bestetik, Afrika bertako industria gelditzea dakar, jantziak galtzea. Gauza asko dago emigrantearen jantziaren atzean”.**

hemen bizi izana zen, Jorma Thusberg, Txuri Urdin izotz-hockey taldeko entrenatzailea izan zen, eta oso ondo hitz egiten zuen beti euskaldunen gainean. Artean Finlandian, euskaldun bat ezagutu nuen, eta horrela, “Herri hori ikusi beharra daukat nik!”, esan, eta hemen naiz harrezkero, gustura.

**Hemen zara, eta euskaraz, euskaldunaren modura.**

Gutxitan joan nintzen eskolara euskara ikasitera. Urte eta erdi. Oinarrizko hitzak ikasi nituen, besterik ez. Gainerakoan, euskaraz entzun eta hitz egin dut, besterik ez. Hainbat hizkuntza ikasi ditut, eta, agian horrek lagundu dit euskaraz hitz egiteko beldurrik ez izaten. Gaztelania, aldiz, liburuetatik ikasi nuen, oinarrizko ikastaro batzuk egin nituen unibertsitatean eta, gainerakoan, liburuak irakurri eta hitz eginez ikasi dut. Aukeran, nahiego dut hitz egin, besterik gabe. Familia euskalduna da, eta horrek ere hainbat laguntzen du, jakina.

**Finlandia–Euskal Herria “Suomitar” elkarteko kide eta buru zaitugu 2000tik hona.**

21 lagun gara, finlandieraz mintzo diren euskaldunak, eta hemen bizi garen finlandiarrak. Urtean behin edo bitan elkartzen gara, eta euskara-finlandiera, suomei-baski hiztegia izan dugu proiektu nagusia. 2012an gauzatu genuen, mila aleko edizioa egin, eta ia-ia osorik saldu genuen. Bigarren edizioa egitekoak gara orain...

**Finlandiarrak zaren horrek, zer duzu gurean falta?**

Finlandiako paisaia, beharbada. Zoragarria da hura, hango lakuak eta beste! Isiltasuna falta zait hemen. Askoz ere zarata gehiago dago, hirian bereziki! Bestalde, Euskal Herrian mendira joan eta jendea beti! Finlandian ez, han basora joan eta inor ez! Ez duzu bakardadea besterik. Batzuetan falta zait, bai. Eta elurra, hango elurra, dena zurri! ■



VÍCTOR GÓMEZ PIN

# «Demokrazian bozkutzen den guztia ez da duina»

Bartzelona, 1944. Filosofian doktorea. Parisera joan zen gaztetan. Estatu doktore ikasketak amaitu zituen Sorbonan, ordena aristotelikoari buruzko tesiarekin. Dijongo Unibertsitatean irakasle zela, EHUK Filosofia katedra eskaini zion. Universitat Autònoma de Barcelonako katedraduna izana, emeritua da egun. EHUK Honoris Causa izendatu berri du ekainean.

| MIKEL ASURMENDI |

Argazkiak: Dani Blanco

ANTOLOGIA KONGRESURA etorri ohi da Donostiara urtero. Aurten, bestalde, EHUK Honoris Causa izendapena eman dio. Víctor Gómez Pin filosofoarekin solastatu gara bi ekitaldi horien kariatara, ekainaren amaieran.

## Zer lanetan ari zara une honetan?

Naturaren kontzepzioaz ari naiz lanean, naturaren egungo egoeraz, gizakiok haren gainean garatu ditugun kontzepzioak kontuan hartuta. Pertsonok besterik sinetsi arren, naturarekiko gure kontzepzioa teoriak determinatuta datoz. Gure natura determinatzen diren postulatuek naturarekiko gure harremana markatzen dute. Mekanika kuantikoa agertu arte, hala izan da. Teoria aldatzen eta berria sortzen doa. Antologia Kongresuko nire lanean hori aplikatu behar dut.

## Zeri buruzkoa da Antologia Kongresua?

Kongresua filosofiakoa da, baina fisikariak eta zientzilariek ere parte hartzen dute, Donostia International Physics Center tarterko delarik. Ordena naturalaz dihardugu. Greziarren arazo zaharrei buruz abian gara –Aristotelesen ildoan– egungo pentsamendu garaikidera etorri arte. Gizakion arazoa ez da aldatu, aldatu direnak datuak dira, arazoari berrekiteko lagungarriak. Aurten, Donostia 2016 delakoak Aristoteles jaio zeneko urteurrenarekin bat egiten du. XXIV. mendeurrenak bat egiten du Donostia Europako Hiriburua Kulturala izatearekin. Antologia Kongresuan tradizio filosofikoaren arazo handiak planteatu nahi ditugu Aristotelesen omenez. *Physis & polisa* da gaia, natura eta hiria. Aristoteles, naturaz eta hiriaz pentsatzeaz gain, polis terminoa aztertzen lehenbiziko filosofoa izan zen, politika aztertzen lehena beraz.



## Polisa krisian dago. Politika, alegia.

Polisak ez dio sekula krisian izateari laga. Politika krisian dago, bistan da. Krisi garaia estutasun garaia da, alta, orduan gailentzen da larrialdi kontzeptua. Kontzeptu zeharo egokia. Grezieraz juizio eta krisi hitzak kidekoak dira, biek esanahi bera dute. Bereizten eta erabakitzen duena ere esan nahi du krisiak. Hau da, krisiak oso emankorrak izan daitezke. Adibidez, ni oso baikorra naiz Greziako krisiari buruz. Alexis Tsiprasek esan duenez, “ultimatum eman digute, eta guk duintasun soilarengatik herriari erabakitzeko aukera eman behar diogu”. Tsipras duintasunetik abian da. Greziako krisia emankorra da zentzu horretan. European ez da Tsiprasen jarrera duina erakutsi duen politikaririk. Ez dut duintasunik erakutsi duen inor ikusi. Tsiprasen diskurtsoan tragedia greziarraren pasarteak entzun dira. Politikari baten ahotik ez nituen halako hitzak entzun aspaldian. Zinez ederra!

Bidenabar esanda, Rajoyren jarrera lotsagarria salatu behar da. Espainia herrialde gogorrena izan da formetan Greziarekin, Alemania baino gogorragoa. European jarrera ez da parte onekoa. Lehen aldiz bizi dugu egoera hau, Syrizako jendea serioa da, ez dira uzkuritu, Papandrú bezala. Erreferenduma egin nahi izan zuen, baina kikildu zen.

## Nola bizi izan duzu EHUk emandako Honoris Causa izendapena?

Kontzeptu oso ona daukat unibertsitateaz, batez ere unibertsitate publikoaz. Unibertsitate publikorik egon ez balitz nik ez nukeen ikasiko. Parisera joan nintzen gazetetan, lanik eta paperik gabe. Baina, orduan, frantziar errepublikan doan ikas zitekeen. Ramon Vals Plana filosofo katalan handia ezagutu nuen. Berak proposatu zidan filosofia fakultatea Zorroagan antolatzea. Saila zabaltzeko aukera paregabea izan nuen, Jacques Derridá filosofoarekin batera, besteak beste, unibertsitatearen garrantziaz jabetzeko bidea zabaldu zuena. Oso emankorra izan da. Horri gehitu behar diot Euskal Herriari atxikitzeko izan dudana, oso atsegina. Unibertsitate publikoari eskertua nago, eta gaur egun oso minduta jasaten ari den eraso etengabeengatik. Herriarrei eman behar zaien zerbitzu publikoa jazarria dago egun.

**“Rajoyren jarrera lotsagarria salatu behar da. Espainia Greziarekin herrialde gogorrena izan da formetan, Alemania baino gogorragoa”**

## Nork jazarria?

Espainiako Gobernuak, botereak jazarria. Filosofia ikasgaia kendu dute bigarren mailako ikasgaietatik. Wert jaunaz gaizki hitz egitea gauza topikoa da, eta topikoek indarra galtzen dute. Beraz, ez dizut Wert buruz hitz egingo. Bai ordea, Kataluniako osasun kontseilari Boi Ruiz i Garciari buruz. Hara non, jaun ohoragarri omen den hori ausartu den esaten, botere publikoek ordaindu behar dituztela merkatuaren zerbitzura ikasi beharreko ikasketak –jendea esplotatzeko behar direnak–, aldiz, greziarren munduaz ikasi nahi dutenek –Aristoteles, Homero, Euclides... Zientziaren funtsa, alegia– beren poltsikotik ordaindu behar dutela. Adierazpen horiek basakeriaren eta zarpaikeriaren sintomak dira. Filosofia ez da besteak bezalako ikasgaia, denoi dagokigun ikasgaia izan beharko luke, herritar orori zuzendua.

## Gainbehera goaz, antza.

Tira... Filosofiak ez du sekula onarpenik izan, ez du faborerik jaso, filosofia gai borrokatua izan da beti. Sokrates heriotza zigorrera kondenatua izan zen. Filosofoek beti molestatu diote ezarritako botereari. Baina boterea herritar ez argitu eta zuhurrengan oinarritzen bada, boterea ez da legitimoa. Botereak zurgatzen badu herritarren zentzua, botere hori demokratikoa izan arren, ez da legitimoa. Demokrazian bozkatzan den guztia ez da duina. Iritzi guztiak ez du balio bera, inola ere ez. Badago iritzi funtsatua, arrazoidun diren herritarren kolektiboak partekatzen duena, eta badaude pertsonon kalterako baino ez diren iritziak.

## Egungo demokrazia ezbaian jartzen duzu?

Ez. Nik demokrazia ez dut kuestionatzen. Syriza lantzen ari dena demokrazia da. Hau da, hemen badaude nazioarteko botere batzuk ultimatumaz ezartzen dituztena. Eta duintasunez besterik ez bada, galde diezaiegun neurri horiek pairatzen dituztenei [elkarrizketa Grezian kontsulta egin aurretik egin genuen]. Tsipras gutxienez ari zaie galdetzen herritarrei. Duintasunez bederen.

## Horra Grezia, gure kulturaren sehaska.

Grezia da Europa ondrtuaren sorburua. Ez da bakarra, ez dezagun Kordoba Averroes-en ondarea ahantz. “Euskaldunak ez zarete jatorriz greziarrak, kultura aldetik bai, baina hizkuntzari dagokionez ez. Hizkuntza landu eta



baliatu behar duzue”, esan dit berriki lagun batek. Neu neurri batean euskal kulturaren partea ere banaizelako, diot hori.

### Zer garrantzia ematen diozu identitateari?

Hizkuntza interesatzen zait. Euskal antropologiaren berezotasuna bistakoa da, baina nik euskalduna defendatzen dut bere hizkuntza singularrarenatik. Gainerakoan, folklorea, musika edota dantza ez ditut hemengoak eta hangoak alderatzen, aureskua, sardana eta muñeira parekagarriak baitira.

### Euskarak pena eta poza merezi ditu, beraz.

Euskal hizkuntzaz gaztetan arduratu nintzen, baina ez kontu ideologikoengatik, askok uste bezala. 1979an, hona heldu nintzenean, euskarak bizirik jarraitzeak miraria zirudien. Kontu politikoak alde batera utzita, hizkuntzaren singulartasunak erakarri ninduen. Euskara zerbait apartekoa zen niretzat: “Paristik 800 kilometrora halakorik?”, pentsatu nuen. Ez da hizkuntza indoeuroparra. Filosofikoki hagitz interesgarria da. Ikasle ohiekin bildu naiz berriki, horietako hiruk Aristoteles itzuli dute euskarara. Pentsa, Aristotelesen *Metafisika* ez dago katalanera itzulia. Euskarak jauzi izugarria eman du. Kontent naiz hagitz.


### Honoris Causa izendapen hitzaldian euskaraz jardun duzu hogei minutuz. Etsenplu ederra.

Ez dut erregea baino erregetiarragoa izan nahi. Ez diot horri aparteko garrantzirik eman. Etsenplua nork bere buruari eman behar dio. Diskurtsoa prestatzeko Pasaiko Hugoenean egon nintzen. Tokikoek lagundu didate diskurtsoa prestatzen, hemengo lagunak batez ere euskaldunak dira-eta.

### Zer iritzi duzu Kataluniak bizi duen egoeraz?

Egoerak molestatzen nau. Argitu aldera: Kataluniak independentea izan nahi badu, ongi. Hori ez da arazoa. Deitoragarria da ordea, egoera arazo sozial handia eta larria bilakatu izana. Gertatua ez da esplikatzen Madrilek lapurtzen duelako, politika sozial okerra egin delako baizik. Ni Bartzelona hiriarekin identifikatzen naiz. Ada Colau alkatea izatea gustatu zait. Tsiprasen kasuan bezala, jautzia itzela da, duintasunezko jautzia. Duintasuna azpimarratzen dut, Bartzelonan hiritarren duintasunaren aurkako politika egin delako: interes espekulatiboen aldeko etxegintza sustatu dute, itsas-portua eraitsi eta yateentzako toki bihurtu... Ada Colau politika hori aldarazten saiatuko da, eta saiatze soila asko da, edo bada zerbait.

**Katalunia eta Espainiaren arteko arazoak kezkatzen zaitu.**



**“Boterea herritar ez argitu eta zuhurrangan oinarritzen bada, boterea ez da legitimoa. Botereak xurgatzen badu herritarren zentzua, botere hori oso demokratikoa izan arren, ez da legitimoa”.**

Katalunian bizi dugun egoera oso mingarria da, pertsonentzat onartezina. Espainia eta Katalunia artean benetako gaitzuste errotzen ari da, eta hori gaingitu behar da. Esaterako, García Lorca katalanarekiko amultsua izateaz batera, Santiago de Compostelara joan zen eta sei poema idatzi zituen gailegoz. Galiziera eta katalana ikasten saiatu zen. Esan nahi baitut, II. Errepublikako Gobernu saiatu zen gaitzuste hori saihesten, hizkuntzen artean zubiak eraikitzen. Orain, Kataluniak independentea izan behar duela? Esan nahi dudana da, espainiar herriaren duintasunarenatik espainiar herriaren ezin dituen onartu oraingo harreman moduak. Espainia eta Kataluniako bi gobernuen artekoak, hasteko. Bizitza pribatuan dibortziarako legeak egiten diren bezala, herrien arteko harremanetarako ere egin behar dira .

### Podemos gobernura iritsita harremana normaldu al liteke?

Ez dakit. Pablo Iglesias... Hara, ez dut inor izendatu nahi. Podemos boterera iristen bada, harremana beste era batez bidera liteke. Dibortziatzeko lege bat egin dezakezu, eta ez zara dibortziatzen. Aukera irekita izan behar da ordea. Eta dibortzioa ematen bada, eman dadila duintasunez.

### Euskal Herriko politikak ardura al dizu?

Ez naiz axolagabea. Euskal Herrian iraganeke zauriak zabal-zabalik daude eta josi behar dira. Ez naiz kristaua, baina ondradua naizela uste dut. Eta ondradua denak ahanzteko gaitasuna izan behar du. Ahazteko gaitasunik ez badugu, erresumina baino ez dago jendar-tean. Hara, nik ez diot inori ikasgaririk eman nahi. ■



## HEZKUNTZA

# Jai erlijiosoetatik bereizitako eskola-egutegi orekatuagoa

Hiru garaik baldintzatzen dute eskola-egutegia Espainiako Estatuan, Hego Euskal Herrian barne: Gabonek, Aste Santuak eta udako oporrek. Horien arabera antolatzen dira ikasketak eta azterketak. Bada, eredu hori aldatzea erabaki dute Asturiasen.

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |

EUROPAKO EREDUETARA hurbilduz, ikastaldiak hiru izan beharrean bost izatea adostu dute Asturiasen, eta ikastaldi bakoitzaren amaieran gutxienez astebeteko oporrak egitea. Hala, azaroan, martxoan, maiatzean eta udan oporrak izango dituzte eta ikasturtearen hasiera eta amaiera data orain arte bezala mantenduko dira.

Nola lortu duten udako opor kopurua txikitu gabe eta oporraldi berriak gehituz ikastordua mantentzea? Jai egunak aprobetxatuz eta egutegia jai erlijiosoen arabera antolatzeari uko eginez.

Ipar Euskal Herrian, gogoratu dezagun, lau oporraldi dituzte: urrian, Gabonetan, otsailean eta udan.

### “Hiruhilekoaren amaierara leher eginda iristen dira ikasleak”

Asturiasko proposamena irakasleek egin dute: “Ikasleak eta euren behar pedagogikoak



Hiru ikastaldi beharrean bost izango dituzte Asturiasen, eta ikastaldi bakoitzaren amaieran astebeteko oporrak egitea adostu dute.

protagonista bihurtzen dituen egutegia da. Ez dugu nahi jai erlijiosoek egutegia hipotekatzetik”.

Asturiasko guraso elkarteek begi onez ikusi dute ekimena: “Gaur egungo eremuan, hiruhileko batzuen amaierara leher eginda iristen dira ikasle, irakasle eta familia ugari. Denboraren, erritmoen eta egutegiaren arrazionalizazio eraginkorra eskatzen dugu. Garai batzuetan azterketa pila bat kontzentratzen dira eta bat-batean 15 egunez jai hartzen dute ikasleek”.

Irakasle, zuzendari, guraso eta administrazioak aho batez adostu dute proposamena. Beraz, 2016-2017 ikasturtean martxan jartzea erabaki dute, Lehenengo eta Bigarren Mailako Hezkuntzan.

Ikasturtea berrantolatzeko erabakiak, bide batez, betiko gai konplexuak jarriko ditu mahai gainean: zaintza –kasu honetan haurrena– eta familia-kontziliazioa. ■

souvenirs  
**arkupe**  
delikatessen

SOUVENIRS  
**in**  
zaro  
delikatessen


### EUSKAL OROIGARRIAK

Harizko brodatu  
pertsonalizatueta adituak

Kale Nagusia, 16  
San Jeronimo, 14  
Portu, 14

20003 Donostia · Euskal Herria

© 650 210 339 / 618 094 279 · arkupe2@gmail.com



# «Kooperatibagintza zer da, erresistentzia ala alternatiba?»

Hirugarren iraultza industrialean gaude. Horixe azaldu zuen Joan Subirats Humet katedradunak uztailaren 15ean, Mondragon Unibertsitateko Lanki ikertegiak antolatutako jardunaldietan. Kooperatibagintzaren egungo galderak pausatu zituen.

| ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA |

“KOOPERATIBAGINTZAK krisi garaietan irauteko gaitasun handiagoa du gainerako enpresek baino, koste sozial gutxiago eragiten dituelako kapitalismoak baino. Baina kooperatibagintza zer da, erresistentziarako tresna edo alternatiba?” Horra pausatutako lehen galdera. “Alegia, gakoa zer da, hobeto irautea? edo bada beste borondaterik? Birpolitizatu dezakegu kooperatibismoa? Eztabaidatu dezakegu nor irabazten eta galtzen duen erabakiak hartzen ditugunean? Arautu dezakegu berriz kostu eta irabazien banaketa?”. Ekonomiaren zentzua eztabaidatu beharra azpimarratu zuen: “Egia handi bat balitz moduan onartzen dugu esaldi hau: ‘Proiektu hau ekonomikoki ez da bideragarria’. A ez? Ekonomiaz zuk duzun zentzua-aren arabera izango da!”.

### Orain egiten ez badugu noiz egingo dugu bada?

“Galderak birplanteatzeko garaia da. Hirugarren iraultza industrial bizitzen ari gara: Ekoizteko moduaren aldaketak eragindako gizarte aldaketa handi baten aurrean gaude”. *The Economisten Hirugarren iraultza industrial* artikulua oinarri hartuta birpasatu zituen XVIII. mendean bapere makinak ekarritako lehen iraultza industrial, 1903an masa produkzioa ekarri zuen fordismoa, eta hona hemen hirugarrena, Interneten sorrerak era-



**Areto bete kooperatzaileen aurrean eskaini zuen hitzaldia. Argia.eus-eko Gaitzerdi blogean dituzu hitzaldiaren kronika osoa, eta berak aipatutako artikulua eta liburuen loturak.**

gindakoa: “Dena ari da eraldatzen, aldaketa teknologiko horrek posible egiten duelako produkzio sakabarnatua. Egun artxiboek bidaiatzen dute eta ez produktuek. Zer eragiten ari da? Kapitalismo industrialetik kapitalismo finantzierora pasa gara. Jada aberastasuna sortzeko oinarria ez da produzitzea (demagun, zubi bat eraikitzea). 24 orduz zabalik dauden burtsetako diru mugimenduen operazioekin pilatzen dute aberastasuna”.

### Hobe da lehiatzea kooperatza baina?

“Sistema kapitalistaren erantzuna da beti dela hobe lehiatzea. Hirugarren iraultza industrial egoera honetan, kooperatza eraginkorragoa dela dioenik bada. Interneten demagun, kooperazioak dakarren hobekuntza gaitasuna handiagoa da, lehiari oinarritutako sistema itxiena baino: Wikipedia beti izango da hobe Britainiako Entziklopedia baino (azken hau itxi egin zuten). Wikipedia geldiezina da. Wikipedia jendearen ekarpenarekin etengabe elikatzen doa eta ondasun komuna da. Bere jabe goa izatea baino garrantzitsuagoa da sarbidea izatea. Internetek dakarren kooperazioa, kode irekia, etengabeko hobekuntza, elkarriketan dago kooperazioarekin? Ezagutzen ditudan Kataluniako esperientzietan, ez. Aldiz, Interneteko logikarekin eta merkatuaren logikatik kanpo sortu diren hainbat dinamikek naturalki hartu dute kooperazio eredu”. ■





DANI BLANCO

**Garbiñe  
Biurrun  
Mancisidor**



LEGELARIA

## Grezia eta Europar Batasuna. Eta herritarrok eta politika?

GREZIAREN ETORKIZUNA kolokan egotea bukatzeaz dago azken hilabeteetako negoziazioen eta kezken ondoren, formalki behintzat. Greziak Europar Batasunaren (EB) baldintzak onartu ditu, erreferendumean EBren “azken proposamena” herriak errefusatu eta gero.

Grezia galtzaile: lehen erreskatetik hona inposatu zaizkion neurri ekonomikoek –eta oraingoek– pobrezia besterik ez dute ekarri(ko), beste hainbat herrialdetan bezala: zerbitzu publikoen pribatizazioak, eskubide sozialen murrizketak, ondare eta errenta handiei zergak jaitsi eta errenta txikiei zergak igo. Hau da, jarduera ekonomikoa eta enplegua suntsitzea, eta talde eta pertsona ahaltsuen aberastasuna ugaritu da. Hori guztia egin eta gero, Grezia –edo beste edozein herrialde– zulotik ateratzen bada, beste batean murgilduko da: bere menpekotasun ekonomikoa ikaragarri handia izango da, bere baliabideak oso urriak eta bere gizartea zatitua eta orokorrean oso pobretua.

*Nork irabazten du? Behin eta berriro errepikatu bada ere, Alemania da garaile. Berak inposatu dizkie baldintzak beste herrialde guztiei eta berak markatzen du erritmoa. Gezurra dirudi, II. Mundu Gerraren ondoren Alemaniak bere zor ekonomikoari heldu ezinean, beste hainbat herrialdek –Greziak barne– barkatu izana*

EBk ere ez du gauza handirik irabazten horrelako politikak aplikatuz. Orain bada-kigu herstura ekonomikoak porrot egin duela eta talde ekonomiko handiak asetzeko balio izan duela. Zer irabazten du EBk Grezia hondoratuz, finean zorrak eta irabaziak komunean kudeatu behar badira?

Nork irabazten du? Behin eta berriro errepikatu bada ere, Alemania da garaile. Berak inposatu dizkie baldintzak beste herrialde guztiei eta berak markatzen du erritmoa. Gezurra dirudi, II. Mundu Gerraren ondoren Alemaniak bere zor ekonomi-

koari heldu ezinean, beste hainbat herrialdek –Greziak barne– barkatu izana horren puska handia. Gezurra dirudi horren oroi-men txarra izatea eta berak profitatu zituen abantailak besteei ez aplikatzea. Halere, garaipen hau itxurazkoa besterik ez da: batetik, Alemanian herritarren arteko desberdintasunak ari dira azkar hazten; bestalde, iraganean gertatu zen bezala, etorkizunean ere Alemaniak europarren beharra izango duen –bestela, pentsa ezazue non saltzen du bere ekoizpenaren zatirik handiena–; azkenean, interes ekonomikoek irabazten dute, baina ez herriak. Baina beste ñabardura batzuk ere egin behar dira:

– Greziaren gaurko egoera aurreko gobernuen eta EBren jarreraren ondorioa da: Greziako bankuak neurririk gabe zorpetu ziren, zor pribatu hori publiko bihurtu zen eta bere finantziarioa ere EBren neurri-ra egin zen –jatorrizko zor publikoa handia bazen ere, asko igo da arrazoi horrengatik–.

– Greziaren egoera ez da bakarrik bere erruz: EBk onartu zituen herrialde honek aurkeztu zituen “kontu faltsuak” hitzik esan gabe.

– Grezian aplikatu dira orain arte Troiak inposatutako neurriak: Norvegiaren atzetik, Grezia da defizita gehien murriztu duen herrialdea, baita gehien eta azkarren gastu publikoaren kopurua jaitsi duena ere. Eta neurri horien ondorioak ederki asko ezagutzen dituzte greziarrek. Gainera, erreskatetik jaso duen diru multzorik handiena bankuei ordaintzera joan da.

Eta politika? Eta herria? Eta demokrazia? Tsiprasen Gobernuak erreferenduma iragarri zuenean txalotu nuen ekimen demokratiko hori. Txalotu nuen emaitza greziarren duintasuna jokoan zegoelako, Politikari deia egiten zitzaielako eta Tsiprasen posizioa indartzen zelako –negoziazioetan Greziako herri osoa egongo zelakoan–. Ez dakit harrez gero zer gertatu den, zer zailtasun eta “mehatxu” sortu diren, baina argi dago greziarren ahotsa ez dela entzun. Ez greziarrena, ez justizia sozialarena. Nola hartuko da egoera “berri” hau horren argi hitz egin duen herrian? ■









DANI BLANCO

Iñaki Antigüedad

AMAIURREKO DIPUTATU OHIA ♦

## Ezusteakoak usteko egiteko bidean

GOGOETA EGUNEROKO bidaide behar dugu, gaur atzo baino gehiago, iraganak ez baitu bidea mugatu behar. Hortaz, nora-bideaz eta nola-bideaz, bietan jarrai, gogoeta. Sarri gertatzen da tarteko helmugan lortutakoa abiapuntuan uste zena ez izatea. Hortixe ezusteak! Hauek gutxitzeko onena ikusmoldea zabaltzea da, oinak orainean eta burua orain-geroan, aurreikuspenak eta atze-ikuspenak eraginkor uztartuz. Eraginkorra ez denak ez baititu aldaketarako baldintzak sortzen. Berez dinamikoa eta biodibertsoa den munduan halaxe behar du hemengo ezkerreko subiraniston jardunak, une oro ondo kokatuta egotea beharrezkoa baita aldaketek behar duten gehiengo soziala aktibatzen.

Azken hauteskundeak lau urteko markoa utzi du hainbat instituziotan. Orduko hainbat ezusteko hurrengoan aldeko usteko bihurtzeko bada zer birpentsatu. Nire pentsaeraz, iraganetik dakartzagun ardatz batzuk desmitifikatu behar dira behingoz. *Ezker-eskuin* eta *abertzale-erabertzale*, kasurako. Iraganen proiektuen konfrontaziorako bidea eman zuten horiek ez dute orainean funtzio hori betetzen, lehenago sinpleak ez baitu oraingo konplexuan funtsezko lekurik. Gure proiektua ere ezin orduko bera izan. Krisi sistemikoa krisi.

*Fronte Zabalean aditu gehiago behar ditugu soziologian zuzenbidean baino, guztion beharra egonda ere*

Hortaz, ohiko abertzaletasuneko lurraldeetan izan ditugu ezusteko grisak, gainerako euskal lurraldeetakoak emankorragoak izan ditugula. Hor eta han egin dako ibilbideetan pedagogia desberdina izanagatik, seguruenik. Ikasgai hartzeko. Burujabetza kontzeptu integratzaileagoa behar dugu, gehiengo sozial batek integratzeko modukoa, mundu globalizatuan euskal herritarrok barne eta kanpoko ardurak geure lurraldetik kudeatzeko. Norabide honetan Fronte Zabalek aukera baliagarria izan beharko luke metamorfosirako, egiteko eta eragiteko moduetan asmatuz gero. Frontean aditu gehiago behar ditugu soziologian zuzenbidean baino, guztion beharra egonda ere.

Izan ere, proiektuen konfrontaziorako gaurko ardatza kultura soziopolitiko ulertu eta gauzatzeko moduan datza. Hortaz, sortu diren formazio politiko berriak elkarlanerako kide hartzeaz gain, bada guk erantzun beharreko galdera: zergatik ezkerreko subiraniston gaurko proiektua ez den lagun horientzat erakargarri? Zergatik? Beharbada, paradigma berrien sasoi historiko honetan iraganaren eta hiztegiaren inertzia harlauza astunegia dugulako, are gehiago ohiko pedagogiaz zabaltzeko. Tira, zenbatuak izango garen hurrengoan emaitzek ez gaitzabela ezustean harrapatu! ■



XDZ

Joanes Etxebarria

♦  
KAZETARIA

## Tourra fikzioa da

ARIKETA ARRISKUTSUA DA, kazetaritzan debekatua. Halere, aztia izan gabe ere, iragarri daiteke idazterako orduan oraindik gertatu ez dena. Tourra Mauletik pasa beharko litzateke arratsaldeko hiruretan. Tenorea okerra da beharbada irakurketaren orduan, baina ziklistak Mauletik pasa ziren.

Fikzioa ez dena, bezperako hedexurien joan-jinak dira. Frantziako Tourrarentzat, Frantziako polizia behar zen. Euskaldun matrikula espainoldun batzuk mendian gora, euskaldunak zirela erakusteko intentzioz; Maulen geldialdi bat, presoen aldeko banderola batzuk hartu, eta abanti. Eta gu

hemen, Frantzian galduak. Tourraren pantailaren Frantzian harrapatuak.

Tour egunean —hau bai iragarpena dela idazterako orduan—, euskal preso eta iheslarien aldeko bertso poteoa egin genuen. Normalean, jendeak ikusten gaitu, gure kolore, musika eta doinu. Aurten, susmoa dut publizitate karabanako punkytzat hartu gaituztela ostaturaz ostatu genbiltzala. Amorrutik puntu bat ematen badit ere, zerbaitek goxatzen dit herria: ziklistak haien kameraz lagundurik Mauleko Victor Hugo karrien pasa zirelarik, ez ginen konturatu ere, bertsoak entzuten genituelako Zinka ostatuan. ■



Gorka Moreno Márquez

♦ EHUko IRAKASLEA

## Gasteiz eta udal hauteskundeak: irabazi galtzeko

AURREKO ARTIKULU BATEAN gai honen inguruan idatzi nuen. Pitonisonarena egiten ere saiatu nintzen eta zeharka baldin bada asmatu nuen. Onartu behar dut, ez nuen pentsatzen PPK Gasteizen egindako hautuak hainbeste boto emango zionik. Dena den, azkenean estrategia hori bere kontra azaldu da. Lehen PPK alkatetzat zuen eta hurrengo lau urteetan oposizioan emango du.

Gasteizen azken hilabete hauetan gertatutakoak irakaspén asko utzi dizkigu, batzuk oso baliagarriak etorkizunari begira. Lehenik eta behin, hori bagenekien aurretik Ikuspegi-Euskal Immigrazio Behatokiak egindako ikerketen bidez: Euskal Autonomia Erkidegoan badago jende kopuru garrantzitsu bat PPK bultzatutako ikuspegiarekin bat egin dezakeena. Beste era batera esanda, mota horretako diskurtsoetarako badago gizarte eta hauteskunde eremua. Bigarrenik, eta aurrekoari lotuta, azken hilabeteotako gertaerek argi utzi dute politikariek duten eragina eta indarra. Gizarte-

*“Gasteiz afera”ren kudeaketa politikoak eredu izan beharko du etorkizunean, landu eta aztertu beharrekoa. Alderdi politiko edo etorkinen inguruko leloak erabili nahi dituztenentzat ere argia da mezua. Diskurtso horrekin botoak lortu daitezke, baina honek ez du gobernatzeko aukerarik emango*

ren zati batean errotuta egon daitezkeen ideiek agenda publiko eta politikorako igaroaldian politikariek izugarriko ardura eta boterea izan dezakete, hauteskunde emaitzetan oso era nabarian ageri zaigu hori. Baina sua pizteko duten ahalmena, su hori bertan behera uzteko modukoa dela ere nabaria da. Zentzu horretan aipagarria izan da PPK ez bezala, gainontzeko alderdiek izan duten jarrera, bai hauteskundeak baino lehen, baita ostean egindako kudeaketan ere.

Azken ondorioa, azpimarragarriena, hauxe da: gehiengoaren diren gainontzeko alderdiak adostasunera ailegatu dira eta elkarbizitza arriskuan jartzen zuen diskurtsoaren aurrean batu dira, tartean egon zitezkeen zailtasun guztiak alde batera utziz. Nire aldetik eskerak eta zorionak alderdi guzti horiei, egin dutenagatik eta erakutsi duten ausardia eta eskuzabaltasunagatik.

Baina, orain zer? Gasteizen, hautsitako edo gutxienez ahuldutako zubi guztiak eraiki beharko dira, bai alderdien artean –guztiak–, bai gizartearen baitan. Gai hauetan dihardugunontzat uste dut *Gasteiz afera*ren kudeaketa politikoak eredu izan beharko duela etorkizunean, landu eta aztertu beharrekoa. Alderdi politiko edo etorkinen inguruko leloak erabili nahi dituztenentzat ere argia da mezua. Diskurtso horrekin botoak lortu daitezke, baina honek ez du gobernatzeko aukerarik emango. Bi aldiz pentsatu beharko dute, emaitza are paradoxikoagoa ezin baita izan: irabazi galtzeko. Badalona ere antzekoa gertatu da.

Benetan denok irabazle atera garela uste dut, Gasteiztarrak nabarmenki baina baita gizarte osoa ere. Eta segur aski denborak arrazoia emango dit. ■

**EB Traducciones Itzulpenak, S. L.**

[www.tradebi.com](http://www.tradebi.com)



## Errezetak



**Erika Lagoma  
Pombar**

1

Ez dut aurkitu kokorik,  
ezta wakame algarik,  
hala ere hau da gure lurra  
Eta ez dugu hoberik.

2

Teseo pintzekin hartu,  
Epicuro fusionatu,  
bidea beti da potentziala,  
beraz, irrikaz dastatu.

3

Identitateci zurrut,  
eta ateratzen da Hulk,  
sukaldea narrasten ikusi  
ditut gazte ero batzuk.

4

Popularra ta jasoa,  
champagne kopa ta basoa,  
baina oraindik ez dugu argi  
nork hil duen arbasoa

5

Zorrotz mantendu labana,  
nahastu aita ta ama,  
kontuz ibili esku artean  
lehertuko zaizu flana.



6

Infusionatu tribua,  
eta astindu burua,  
geroak esango du zer zaren,  
guru edo babua.

7

Harria beti da harri,  
ta herria du aldarri,  
iragazkitik pasatu eta  
bandeja batean jarri

8

Ez zazu bota azala,  
kristalak gorde dezala,  
E-200ik gabe mantentzen  
da euskaldun naturala.

9

Irabiatu denbora,  
ta sartu kobazulora,  
Izan egia izan gezurra  
nahi duzuna izango da.

10

Trapuaz garbitu zerra  
eta arnastu eterra,  
ez dugu nahi baina hori gara  
finean, txorizo-burgerra.

**Doinua:** Sorterriko koplak.

\* HUHEZIk antolatutako Euskal Kulturgintzaren Transmisioa graduondokoan jarritako sorta.

ERDIKO KAIERA

EGUNBEREKO ALARGUNA

# Lorearen muin zitalak

Egun bereko alarguna anitzetan hautematen da, Zuberoan bederen, edozein adinetako abeslarien ezpainetatik isurtzen. Maddi Oihenartek adibidez zuzenean ematen duenean, emozioa gora doa, mailaz maila eta ahotsa beti perpaus zati berdinarekin behaztopatzen da: “zitru urez üküzten nizün astian egün batian”... xuxurlatzear dagoelarik. Hamazazpigarren mendeko krimen honen lekukotasun poetikoak erraiak nahasten dizkigu oraindik ere.

TESTUA:

| ITXARO BORDA |

IRUDIAK:

| AINARA AZPIAZU “AXPI” |





1633KO UZTAILAREN 8 HARTAN, besta erraldoia ontsa aitzinatua zen Garazitik eta Basabürüatik hurbildu gonbidatu parrasta liluratuaren pozerako. Atabalak lagun, txülülak eta txistuak erotzen zihoazen. Bertsolaria zoko batean zeuden, etxeko jaunak libertitzeko gaiak noiz emango zizkien aiduru. Zerbitzariak ez zekiten nola burutze egin berotzen ari ziren gizon eta emazteen artetik lehiatzeko. Zaroko Lohitegi sendia Altxaiko Irigarai familiarekin uztartuko zen, Pierra eta Gabriela ezkonduz gero. Nehork ez zuen huts egin nahi bikote gaztearen alaitasuna partekatzeko ordua, nahiz eta gizona hartu zuenean Gabrielak dagoeneko hogeita hamar bat urte zituen.

Adinaren florian, Gabriela ez zen edonor. Zaro, Aintzila, Ipartze eta Larzabaleko Santa Mariako jauna eta Nafarroako Parlamentuko kide zen aita ohoretsuaren alabak dote ederra ekarriko zion Altxaiko eta Mendikotako Cazenaveren ondorengoa zen Pierre Irigarai noble apalari. Eztei-itunez 1.875 librazio dirutza eskuratu zuen senarrak.

Altxaiko plaza irekian alegrantzia ikusgarria zen! Gabrielaren begitarreak ez zuen zoriona ukatzen, zetazko jantzi zuriarekin, fura-furan eta firinfaran, agurrak eta besarkadak banatzen zebilen, irri sanoak edertzen baizik ez zuela. Etorkizuna eskura zuten, osasuntsu eta aberats ziren biak ala biak. Inguurukoak ez ziren arrangura, basoak altxa eta huts ari zirela, zaratari airosean:

Goizian goizik jeiki nündüzün  
ezkontü nintzan goizian;  
Bai eta ere zetaz beztitü  
ekhia jelki zenian.  
Etxekandere zabal nündüzün  
egüerdi erditan...

Jean Dominique Sallaberry (1837- 1903) musika eta bertso ondare biltzaileak jarri zuen bere bilduma ezagunean 1870ean. Ordura arte ahotik ahora pasatu zen, belu-naldi batetik bestera. Aitzinako eresietan bezala, honetan ere, olerkari herrikoia gauzen labor eta on errateko trebetasunaz ohartzan ahal gara: ele bakaneko lau koplatan mundu bat moldatu zuen, ahantzi ezina. Hori baino gehiago, aditzen dugun bakoitzean negarra begira jauzi arazten digu... Bertsola-

**Italiarrek landu zuten maisuki lili pozoituen alorra. Teknika, belagile ibiltarien bidez, etorri zen Frantziako gortera**

**Andreak, pena gainditzeko, erritual makabroa eraiki zuen: senarra ganbaran atxiki zuen zazpi urtez. Fideltasun izugarria. Miresgarria. Okaztagarria, kontuan hartuz usteltzeak bere egiten jarraitzen zuela**

ria, Gabrielaren baitatik mintzo da, lehen pertsonan, kontakizuna intimitate batetik harilkatuz. Irudi zinez azkarrak direla medio txertatzen ditu gertakari latzak aditzaileen memorietan. Amaren Alabak taldeko neskek grabatu zuten lehen diskoan eta ardura eskaintzen dute, modu moderno batean, Euskal Herriko taula gainetan.

Goizetik arrats halatan bizitza baten tragedia garatu eta zartatu zen, goizean goiz jaikitetik ekhia sartu zeneraino. Bere jantzien aipametik ezkongaiaren poza irudikatu dezakegu eta haren estatutu soziala halaber, Txinako oparotasuna eta ezertasuna oroitu arazten duen zeta karioz beztitua zelako. Derragula 1271tik aitzina zetaren bidea ezaguna zela. Marco Poloren itzaletik, merkatariek oihal preziosoak garraiatzen zuten ekialdetik, Europako aristokraten arropak josteko.

Bigarren eta hirugarren kopletan dator senar emazteen solasaldia. Jadanik hiltzen ari zen Musde Irigarai burua makur zetzikan eta horrek andrea beldurrez hormatu zuen, bien arteko amodioaren naturaz kezkatzen zela. Emakume senezko susmoak zituen, zerbait ongi ez zihoala alegia:

Musde Irigarai, ene jauna,  
altxa izadazüt büria  
Ala dolützen ote zaizü  
enekila ezkontzia?  
-Ez, etzitadazü dolützen  
zurekin espusatzia,  
ez eta ere dolütüren  
bizi nizano maitia.

Altxaiar gazteari herioaren unearrekin batera etorri zitzaion aitortzaren tenorea. Gabrielaren altzoan erdi-etzana, azken hatsa ematean, sekretuan ikusten zuen maitale bat zeukala salatu zion. Isilik eta gordean zerman harremana, erantsiz zeruetako jainkoa baizik ez zegoela jakinean. Arrazoa zuen Gabrielak Pierraren amodioaz zalantza egiteko: ezkontza konbeniozkoa izan zitekeen, garai haietan ohitura zenez, gurasoek antolatu, ardita ozenen truke.

Nik banizün maitetto bat  
mündü ororen isilik,  
Mündü ororen isilik eta  
Jinko Jaunari ageririk;  
Buket bat igorri ditadazüt  
lili arraroz eginik.  
Lili arraroz eginik eta  
erdia pozoatürük...

Krimenaren arma zein zen azaldu zion senarrak xehetasun franko eskainiz: lore sorta edo lili buketa zitala. Italiarrek landu zuten maisuki lili pozoituen alorra. Teknika, belagile ibiltarien bidez, etorri zen Frantziako gortera. Aristokraziaren hoberena, orduan ere, jendarte arruntera heltzen zen agudo. Berpizkunde aroan asko eta asko zendu ziren molde leun eta eroso honez: aita sailduak, erregina turkiar-rak, Shakespearen eskutik Hamlet Danimarkako erregea eta Altzaiko Musde Irigarai bere ezkontza-egunean:



Bai eta ere alargüntsa gazte ekhia sartü zenian...

Agripa D'Aubigné (1552-1630) historialariaren arabera Labriteko Joanak antzeko heriotza jasan zuen, 1572an Parisen semearen ezkontza handiosa apailatzen ari zela: Medizistar Katarinak, funtsean makiavelikoa zenak, pozoitutako eskularruak oparitu zizkion. Sukar latzak gatibatu zuen Nafarroako erregina alderraia. Lau gau eman zituen hiltzen, sufrikario garratzetan. Legenda hau ez da gehiago nehon agertzen, biriketako minak akabatu zuela diolako engoitik bertsio ofizialak. Baina D'Aubigné poeta egona zen Nafarroako lurretan, hainbat miresten zuen erregina defuntuaren zerbitzuan.

Zein ziren bada Irigarai jaunak aipatzen zituen lili arraroak? Sasietan, larretan, denetan aurkitzen dira udaminean biltzen eta neguan idortzen uzten diren loreak. Haietako pare baten lanjerostasuna ezaguna zaigu: astaperrexila, belladona eta txarpoila bereziki, xendra ertzetan, han hemen ikusten direnak. Haurtzarotik lore mota horiek ez ukitzen irakatsi ziguten etxeok. Herritarrek buketa zitalak egiten zekiten aristokraten aholkurik gabe.

Bukaerako koplak zirrara distilatzen du gorputzetan. Errealismoz bete hitzak datoz bertsolariaren ahotik. Herioaz eta eromenaz haratagoko eremu uher batean gaude: herioa bizitzarekin zizare dantzan dabil...

–Zazpi urtez etxei dizüt gizon hila ganbaran;  
Egünaz lür hotzian eta gaüz bi besoen artian,  
zitru urez üküzten nizün astian egün batian.  
Astian egün batian eta ostirale goizian!

Alargundu zen Gabriela. Irigarai familiak dotea Lohitegitarrei itzuli zien berehala, biharamunean bertan. Bakartasun horretan andreak, pena gainditzeko, erritual makabroa eraiki zuen, mistikoa eta epikoa batera. Lizuna halaber: bere senarra ganbaran atxiki zuen zazpi urtez, egunaz lur azpi hotzean eta gaeuz bere besoen artean. Fideltasun izugarria. Miresgarria. Okaztagarria, kontuan harutz usteltzeak berea egiten jarraitzen zuela.

Zazpi zenbakia, urte denbora neurria, astea ekinaren errepikakortasuna indartzeko eta fededunek errespetatzen zuten ostirala hilotzaren garbiketari ekiteko eguntzat erabiliz bertsolariak giro mitikoan kokatzen gaitu. Ostiraletan alabaina, mehe eginez, ez zen haragirik jaten. Gabrielak, arrastirian, senarra biluzten zuen eta elikaduren kontserbatzeko egokia zen zitroin urez ikuzten, astiro eta maitekiro. Beharbada alargüntsa gazteak medikuei eskatu zien Musde Irigaraiaren gorpua baltsamatzea, maitasunak bezainbeste iraun zezan, edozein baldintzatan.

Jean de Jurgain XIX. mendeko ikerlaria *Zuberoako Legenda Poetiko Zenbait* liburuxkan, artxiiboak arakatu, Gabriela Lohitegiren bizitzak nolako destinoa eduki zuen kontatzeko gai izan zen: hamabost urtez eraman zuen Musde Irigaraiaren dolua eta kasik mende erdia kunplitzean, Muskildi eta Urdiñarbeko Ahetze jauretxeko jaunarekin ezkondu zen 1648an. Adin aitzinatuaगतिक, zurubi sozialean hupatu ziren hiru haur ukan zituen. Hondarrean, 1688ko apirilaren 27an, laurogeita sei bedatsetan hil zen heriorik lasaienean.

Eta kantaren ikara gugan... ■



# Ez dute paperik galdu

Eskerrak oraindik jende zoroa geratzen dela. Arriskuak hartzeko prest dagoen jendea. Liburu denda bat mantentzearekin konformatu ez eta beste bat abian jartzeko adorea daukana. Barka, gaizki esan dugu: Garoa ez da denda hutsa, zerbaitengatik dauka “kultur lab” apellidua. Lehenbiziko urtea bete du proiektuaren Donostiako adarrak eta joan den ostiralean ospatu zuten.

| GORKA BEREZIARTUA MITXELENA |

“AUZOAN EDUKITAKO HARRERA eskertu nahi diagu”, dio Garoako Imanol Agirrek. Groseko Zabaleta kalean dagoen lokalari lehen kandela itzali aurretik ari da telefonoz. Egingdako bidea baloratzaren hasita, antolatutako ekitaldiek deitzen dute arreta, Donostian martxan jarri zirenetik 200 inguru –soberan dago gogora ekartzea urteak 365 egun dituela; sekulako erritmoa da–.

“Beharrezkoa genian hasieran halako soinua sortzea; azken finean, pertsonok ohituraz funtzionatzen diagu: jendea hona gerturatzaren saiartzeko eta bere ohituren artean sartzeko egin diagu”. Ahalegina handia, baina harrera ere ona. “Konturatzaren gaituk familia bat sortzen ari dela hemen.

Garoak daukan planteamendua hori duk, irakurle taldetik hasi eta ‘Paperezko kontzertuak’ edo ‘Paperezko antzerkia’-rekin familia bat sortzea”. Dendan antolatu dituzten bi egitasmori buruz ari da: liburu artean egin diren kontzertu eta antzezlanak, dimentsio txikirako pentsatuak, publikoari eksklusibotasun sentazioa transmititzen diotenak.

Musika emanaldiak izan dira ekitaldien artean arrakastatsuenak, gonbidatuak ere ez baitira makalak izan –The Wave Pictures, Jabier Muguruza, The Sadies, John Berkhou, Robert Ellis...–, gehi aurretik Zarauzko Garoan aritu izan direnak. Zarautzen, bai, bi buruko animalia kulturalaz ari baikara: kostaldeko herriko Trinitate kalean Imanol eta Eneko Agirre anaiek gurasoengandik jasotako proiektua da duela urtebete kapitalera hedatu zutena.

Apustu bat? Ondo kalkulatu zeukaten dena? Ezetz dio Agirrek: “Askotan bideraga-

rritasun-planak gezur handi bat direla iruditzen zaidak, ikusi besterik ez zegok autopistetako obren aurrekontuak zenbat igotzen diren”. Kalkulua baino, grina da hitza: “Kaskezurrean sartzen zaidan guztia egin behar izaten diat. Amets bat zuan eta probatu behar, ‘egin izan banu’ esaten ez geratzeko”.

## Mende honetako liburu denda sortu nahian

Baina liburuak, nork erosten ditu? Ez da kultur produktu desiratuena inondik inora, maiz argitaratzen dira “irakurlearen heriotza” iragartzen duten iritzi –dena esan behar bada– apokaliptiko samarrak. Beraz ez, ez dago “irabazi-asmo handirik” horrelako zerbait

martxan jartzen duzunean, Agirrek berak aitortzen dizu: hilerorangi-leei soldata duina pagatzeko edukitzea, horixe erronka.

Eta horretarako ere beste osagarriak behar: “Liburu dendariak edozer gauza sal zezakek, motxilak, jostailuak, fotokopiak edo kinielak.

Guk hasieratik argi eduki diagu

halako militantzia bat sortu behar geniala inguruan, horretaz ari ninduan lehen familiak aipatzean”. Antzeko zerbait egiten saiatzen da Amara auzoko Kaxilda liburu denda ere, beste ikuspegi batekin Agirreraren ustez: “Saiakeri garrantzia eman ez eta politikaren ikuspegitik ahalegintzen dituk haiek. Gure kasuan, garbi genian zentzu kulturalerako zerbait behar zuela. Hortik aurrera, etorkizuneko liburu denda nolako izango den inork ez zekik”.

Atrebentzia handia ez bada, agian bai esan liteke erosteko baino egoteko lekuak izango direla. Kaxildan jan-edanerako aukera dago, adibidez, haren Iruñeko lehengusu Katakra-ken bezala. Eta Garoak urteurrenarekin ira-

“Etorkizuneko liburu denda nolako izango den inork ez zekik”  
Imanol Agirre, Garoa



garri duen nobedade txikia ere hori da: mahai batzuk jarriko dituztela garagardo bat edo kafe bat hartu nahi duenarentzat –“edo, besterik gabe, wifia txupatzeko” dio barrez Agirrek-. Segi aurretik ñabardura dena den: “Ez diagu esan nahi kafetegi garenik, liburu denda izaten jarraituko diagu”.

### Bigarren eskuko harribitxien bila

Etengabe bide berrien bila, hemendik aurrera “bi pauso atzera” egingo dituztela dio Agirrek, gero “hiru aurrera egiteko”. Berriz ere oinarriari garrantzia emateko tenorean daude: “Ez diagu nahi hau kontzertu areto bihurtzea ere”. Literaturari eta liburuari lotuago nahi dituzte ekitaldiak. Gainera, bigarren eskuko liburuekin betetzen ari da dendaren atzeko parte. Geroz eta zabalduago dago eredu hori, begiratu bestela Iruñean martxan jarri duten Re-Read frankiziako denda berria.

“Alde batetik jendeak merke nahi dik erosi; bestetik, izugarritzko harribitxiak aurkitzen dituk”. Hizkuntza ugaritan, Garoaren kasuan: euskarazko eta gaztelaniazko aleak zeuzkaten orain arte, Donostian eta inguruetan lortuak; eta orain frantsesezkoak eta ingelesezkoak gehitu zaizkie, Ziburun itxi zuten To The

**Imanol Agirre (ezkerrean) eta Aritz Zestona, Donostiako dendan. 200 kultur ekitaldi antolatatu dituzte lehen urtean.**

Lighthouse dendarekin egindako tratuaeren ondorioz.

Papera, papera eta papera da kontsigna: duela urte batzuk liburu elektronikoak eskaintzen zituen aukerak aztertzen aitzindari izan ziren Agirre anaiak, baina alor hori ez dela beraien terrenoa jabetu dira. Gainera, paperak bestelako esperientzia eskaintzen duela konbentzituruta dago Imanol: “Irakurri, egunean behin edo bitan egin zezakeagu: gozatu dezagun ahal dugun moduan. Nik nahiago papera eskuan hartuta”. ■



**LarZALDIK**

**Lartzandieta Baserria**

Urdaiaga Auzoa, 44 · 20170 Usurbil (Gipuzkoa)

© 666 607 447 · inigohuegun@gmail.com · [www.larzaldiak.com](http://www.larzaldiak.com)

Koord. GPS: 43.266031,-2.067587



Literatura

*Atertu arte itxaron*  
Katixa Agirre

Elkar, 2015



## Euskal uda euritsuak

“ATERTU ARTE itxarotea proposatu duzu; barre egin dizut, inuzente halakoa”. Horrela agertzen zaigu liburu honen izenburua testuan. Protagonistak liburu idazten ari den Ulia mezzo-soprano gasteiztarra eta Avilako Gustavo unibertsitateko irakaslea dira. Madrilen bizi da bikotea eta oporretan Euskal Herrian zehar kotxez bidaiatzea erabaki du, *On the Road* edo *Beribitez* lanak eredu hartuta.

Bidaia ez da bakarrik denboran eta espazioan gertatzen den mugimendu fisikoa, bilaketa, ihesa edo memoria ariketa izan daiteke, kasu honetan hirurak. Euskal gatazkari begiratzeko beste saiakera bat, bakezaletasuna ardatz duena. “Memoriaren barrunbeetan” sartuko da protagonista, maila pertsonal eta kolektiboan bizi (izan) dituen gatazkei buruz hitz eginez. Plano batean bikotearen eta familiaren gorabeheri buruz arituko zaigu eta beste plano batean “aktualitatea”-ren bilakaera agertuko zaigu, bi planoen arteko joan-etorriekin. “Tira, gure istorioan bonbak daude, eta hildakoak. Horrek egiten du agian diferente. Komedia erromantikoetatik diferente, esan nahi dut, ez munduan barrena suertatuko diren hamaika maitasun istorioetatik diferente”.

Pertsonaien gatazken barruko eta kanpoko begiradak emango zaizkigu, diskurtsoa, identitate eta jarrera anitzak eraikiz: ni eta zu ditugu, baina gu ere badugu. Baina nor da gu? Batzuetan bikotea, besteetan aberria. Bestea(k) nor d(ir)en ere aldatzen

doa testuan zehar: belaunaldi, sexu edo genero bizi-pen, lanbide eta zaletasun desberdinak dituztenak agertzen zaizkigu “exotiko”. Adibidez, Sarah kazetaria (“Beldurra ematen didate tabernetan bakarrik edaten duten emakumeek”), Joseba aitaordea (“Ez nago ohituta beren bihotza parez pare zabaltzen duten gizonekin”), edo Benjamin Britten eta Peter Pears musikari bakezale eta gay-ak.

Bidaia baterako gonbitea, beraz. Eta irakurketari hasiera emateko (eta kritikari amaiera) bidaia intertestual txiki bat proposatzen dizuegu: 1) Pasarte batzuei darien ironia –Karmele Jaioren azken lanean antzeko umorea topatu genuen–. 2) “Marmotaren eguna” edo “Wild wild west” esatera ezagun eta erabiliek zinema estatubatuarrera garamatzate, honen eragina agerian utziz. 3) Ione Gorostartzuren *Maite ditut zakilak* gogorarazi digu protagonistak bere bikotearen zakilari buruz esandakoak. 4) *Bip* egiten duen makina ere agertzen da, nahiz eta segur aski ez duen Monty Python-ekoen zuten helburu komikoa. 5) JK koktelariari buruzkoek Danele Sarriugartek Zulo tabernari buruz kontatutakoa berriro digute, idatziz jasota geratuko den Bilboko mikro-historia. 6) Eta amaitzeko BMW autoa eta honen iragarki eza-guna: “*Te gusta conducir?*”, abentura hau girotzera datorrena azaleko iruditik bertatik. ■

**Amalia Alvarez Uria**



*Rock-and-roll para hijos de perra*  
Rat-Zinger

Maldito records, 2015

## Kontuz helduen amorrazioarekin

IRAGANEAN, heavy peto-petoa zen lagun bat askotan haserretzen zitzaidan esaten niolako Motörhead taldea ez zela heavya, askoz harago zihoala. Testu-guruan jartzeko, kontuan hartu behar da gu gaztetxoak ginenean uztartu ezin ziren bi aukera unibertsal bakar zeudela: heavya edo punka izatea, nahiz eta geroa zenbaitzuk aitortu izan duten halako edo bestelako iragan ezkutua izan zutela. Bi bide erabat desberdin ziren, kontrakoak, Metallicaren *Kill'em all* hura agertu eta batzuek argia ikusi zuten arte. Baina hori beste historia bat da.

Antzinako kontuak dira bi bando existitzen zirenekoak, eta Motörhead-eko arima den Lemy Kilmisterrek betidanik egin du paso halakoez, bere inguruan rock sinesgarria, erraietakoa eta gogorra maite duten guztiak batuz. Gauza bera egin dute emaitzak ikusita, jakina, haren jarraitzaile sutsu diren Rat-Zinger taldekoez. Aurretik proiektu oldarkor askotan trebatutako lagunek taldea sortu zuten Benedikto XVI akabatu eta horren ordeztan Lemy jartzeko. Baina, antza, aita santu alemaniarrek bolbora usaina urrunetik sumatu eta erretiroa hartzea erabaki zuen. Orain Nerbioi alderik alde nork zabalduko ote duen zain daude.

*Crónicas de la destrucción* estreinako lana bolbora hutsa da eta aukeratutako arma punk amorratua; hurrenak, *Cartas al Vaticano*ok, tarteka kutsu hardcore-metaleroa du; eta azken honek handik eta hemendik edaten du: metaletik, ertz oso zorrotzeko rocketik, punkaren gordintasunetik eta kaleko roccaren egiazkotik.

Hain zuzen ere, “sinesgarria” da Rat-Zinger entzuterakoan etortzen zaidan lehen adiera. Sinesgarria eta baita jugularrera doana ere, ez daukalako erdibiderik eta gibela ere bertan uzten duelako. Gauza askori egiten diete deiadar eta batzuen uestez topikoa izan badaiteke ere, barru-barrutik ateratzen zaiela ezin da ukatu. Zer esanik ez, gaur egungo garaietako neurritz gabeko manipulazio eta gehiegi-



kerien erreflexu argia dira haien kankak, nahiz eta ikusitakoa ikusita taldea ia salbuespena den bertako musika panoraman; gutxi dira halako talde amorratuak.

Izenetik bertatik abiatuta, elizaren boterea beraien obsesio nagusienetakoa da, eta horri Lemyren (berriro!) *White line fever* liburuaren estetika batuta, kantu hauek Biblia oso berezi batean batu dituzte, eta hitzei santu deritzoten liburu horretako zenbait aipu gaineratu dizkiete.

Barruko mamiari dagokionez, izenburuak argi eta garbi uzten ditu asmoak: *Rock-and-roll para hijos de perra* (Putakumeendako rock-and-rollera). Metalarrekin ia limurtu nahian aritzen dira, batez ere kantuen oinarrian, eta gai dira musika industrialetik ere edateko; baina lan honetan gehiago dute rocketik, indartsutik, gitarrerotik edo, zergatik ez?, “kaletar” edo “urbano” delako horretatik. Eta gai dira *tempo* erdiak zein punk-hardcoreko abiadurak uztartzeko.

Bai, helduagoak dira emaitzan eta kantuak boro-biltzerakoan, baina baita tiro egiterakoan ere. Kontuz! ■

**Iker Barandiaran**




# Monitoreetako argiak loa galarazten digu

FRANTZIAKO Inserm institutuko ikerlari talde batek LED gailuen, telefono eramangarrien eta ordenagailuen monitoreetako argiek gure osasunean duten eragina aztertu du.

Esan dutenez, XX. mendean hasietarik gaur arte lo gutxiago egiten dugu gauzez, ordubete eta bi ordu artean hain zuzen ere. Mende honen hasieran, pentsatzen zen arestian aipatutako argi motek ikusmenari baino ez ziotela eragiten, baina 2002. urtean erretinan aurkitutako melanopsinazko zelula ganglionarioei esker, egun badakigu argiak ikusmenean ez ezik loan eta aldarlean ere badituela eraginak.

Argiaren aurrean era desegokian egoteak gure erloju biologikoaren sinkronizazioa oztopatzen du. Claude Gronfier ikerlariaren arabera, oheratu baino ordu erdi edo ordubete lehenago urrundu beharko ginatke gure gailuetako argitasunetik, eta argia behar izanez gero, halogeno erakoa eta laranja kolorekoa aukeratu. ■



## Eguzkiko argiaren onurak

Denok gara eguzkiko izpi ultramoreen arriskuaz jakitun, are gehiago uda betean gaudelarik. Baina kontuan hartu behar da eguzkiko argiak hainbat mesede ere egiten digula: hezurak indartzen ditu, barne erlojua erregulatzen du, loa eta aldarlea hobetzen ditu, ikasteko ahalmena handitzen du eta larruzaleko gaixotasunak sendatzen laguntzen du, besteak beste.

ttiki.com/340703  
(Frantsesez)

## Pluton, apur bat ezagunago

Orain bederatzi urte eta erdi abiatu zen Plutonerantz *New Horizons* espazio-zunda. Artean eguzki sistemako azken planeta-tzat genuenak kategoria hori galdua du egun. Uztailearen 14an inoiz egindako Plutoneko gainazaleko argazkirik hurbilenak iritsi ziren Lurrera.

ttiki.com/340704  
(Euskaraz)

## Ozeanoetako ur sakonek beroketa globala moteltzen dute

Joan den mendearren bigarren erdian atmosfera berotzen joan zen giza jardueraren ondorioz, baina XXI.enean, jarduera bera edo handiagoa izanagatik, prozesu horren erritmoa motelduz joan da, Ozeano Bareko eta Ozeano Indiarreko ur sakonek –100 metrotik beherakoek– beroaren zati bat atxikitzen dutelako, antza.

ttiki.com/340705  
(Gaztelaniaz)

# Opportunity, hamaika urte Marteko gainazalean

NASA



2004KO URTARRILAREN 25EAN, *Opportunity* robotak lanari ekin zion Marteren gainazalean. Lehenik Arrano izeneko kraterra aztertu zuen, eta ondoren Victoria kraterreko harkaitzak ikuskatu zituen.

Azkenaldian Endeavour kraterrean kokatu da *Opportunity*. NASAk jakinarazi duenez, Marten daramatzan hamaika urteetan maratoni baten distantzia (42,195 kilometro) ibili da robotak. Lurretik at inoiz

robot batek egindako distantziarik luzeena da, eta hori ospatzeko, espazio agentzia estatubatuarrak zortzi minutuko bideoa sareratu du. *Opportunity*-n kokatutako lau kameretako irudiak ikus daitezke bertan, bai Marteren gainazaleko panoramikak, hala nola robotak bidean topatutako oztupoak.

NASAk adierazi duenez robotak egoera onean dago oraindik, baina baditu arazo informatiko batzuk; memoria arazoak, zehazki. Gauero ezabatzen omen du bildutakoa, baina hori ez omen da larria aurrez Lurrera transmititzen duen bitartean. ■

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza




edukiak



interaktiboa  
www.iametza.com  
T.943 37 67 16

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

### Gurutzegrama



### Sudokuak

Erraza

	2	1		4				
	4		6	7	3			2
7			1	2	9	5		
4	3							
6	5	9				2	3	1
							8	4
		6	7	1	4			3
1			9	3	6			7
			5			1	9	

Zaila

	2	5						
		7	3				1	2
		4		6		5	9	
		8		2	6			
	3							2
			1	3		6		
	4	2		7		8		
5	8				4	9		
						2	5	

**Ezker-eskuin:**


1. Karrika. Mahatsondoaren adar. 2. Zuhaitz mota. Gitarra jotzeko pieza txiki.
3. Naizen honek. Baitan. 4. Objektuak. Hamabi zenbaki erromatarrez. 5. Utikan! Igaro den denbora. Idatzi bat osatzen duten hitzen multzo. 6. Kubako dantza. Idiak gidatzen. 7. Loria. Euri asko egiten duen garaia edo denbora. 8. Indar gutxiko. Goibeltasuna, histura.

**Goitik behera:**

1. **Argazkian.** 2. Irten, atera, jalgi. 3. Aintzira. Nauka. 4. Erbioaren sinboloa. Ez militar ez erlijioso. 5. Ikaraz. 6. Haitzuloetako sarrera estua. Tulioaren sinboloa. 7. Beldur bizi. Gizon hitzak hitz-elkarteetan hartzen duen forma. 8. Zaititxo. 9. Itsusi, itxura eskaseko. 10. Haur txiki. Nihaur (alderantziz). 11. Truke. 12. Sustrai. 13. Haur, ume (Bizkaian). 14. ... egin, eskaini eta ez eman. 15. Garaia, tartea.

### Esaera zaharra

Koka ezazu puzzlearen pieza bakoitza bere tokian eta esaera zahar bat agertuko zaizu.



### Anagramak

Hitz bakoitzak aurrekoak dituen hizki berak ditu, bat izan ezik, baina bestelako hurrenkeran.

Lera	<b>G R I N A</b>
Momentu honetan	
Etekin, emaitza	
Nortasuna hartu	
Arreta, arta	
Aspertu, gogaitu	
Bonu, txartel	
Alaiki	
Isurkari mingots	
Buruz motel	
Atmosferako gas	
Zein tokitako	
Ongile	<b>O N G I N</b>

### Soluzioak

**ZAHARRA:**

3	7	4	8	5	2	1	9	6
1	8	2	6	3	6	4	7	5
5	9	6	7	1	4	8	2	3
2	1	7	3	6	5	6	8	4
6	5	6	4	8	7	2	3	1
4	3	8	2	6	1	7	5	9
7	6	3	1	2	9	5	4	8
8	4	5	6	7	3	9	1	2
9	2	1	5	4	8	3	6	7

Erraza

**ANAGRAMAK:**

7	9	1	6	8	3	2	5	4
5	8	3	2	1	4	9	6	7
6	4	2	5	7	6	8	3	1
2	7	9	1	3	5	6	4	8
4	3	6	8	9	7	1	2	5
1	5	8	4	2	6	3	7	9
8	1	4	7	6	2	5	9	3
6	7	3	5	8	4	1	2	9
3	2	5	9	4	1	7	8	6

Zaila

**Goitik behera:** 1. Kangurua. 2. Abatu. 3. Laku, 8. Ahul, Malenkonta. 4. Gauzak, XII. 5. Ur, Irgan, Testu. 6. Rumba, Iurretan. 7. Aintza, Euri. 8. Ahul, Malenkonta.

**Ezker-eskuin:** 1. Kale, Aihen. 2. Abartz, Zi. 3. Nik, Kautan. 4. Gauzak, XII. 5. Ur, Irgan, Testu. 6. Rumba, Iurretan. 7. Aintza, Euri. 8. Ahul, Malenkonta.

12. Erra. 13. Segn. 14. Tard. 15. Unca.

Giza. 8. Txartel. 9. Ezana. 10. Nini, Uen. 11. Truke. Nam. 4. Er. Zibil. 5. Ikara. 6. Aitka. 7. Im. 7. Izu.



## Nafarroa arabiarra

“GALDERAK zabaltzen du bidea”, dio ARGIA aldizkari honetako lagunek iaz egindako elastiko batek. Maiz janzen dut, bereziki zenbait lagunen aurrera joan behar dudanero; lagunak ez diren lagunak, gehienetan. Etengabe ikasteko joera duena nahi izaten dut aldamenean, ukalondoa sartu eta lotsagorritu beharragatik ere aurrera begira dagoena.

Holaxe nabil ni noan toki guztietan. Nafarroa Beherean atzo, Ainhize-Monjolosen, Laborantza Ganberako lagunekin. Han eza-gutu dut Manex, Manex Lanatua, Xumilenea etxeko zurgina, Ahatsako poeta ahatsarra. 31 urte badira Itxaro Bordak, ARGIAN bertan, *Hegatz urratua* haren liburuari buruz zera esan zuela: “Oraintxe bertan eskuratu dugu zoramen bat, bai forma aldetik, bai mamiaren aldetik. [...] Mami ere hein berekoa da: sentitzen da sei poema horietan, libertate haize batek lerroak oro zorutzen dituela. Artzain izanak, eta ebanista denak ez zezakeen noski bestela egin”. Artzain-ebanista-poeta... Haren paisaia kulturalari buruz atertu gabe galde egin dakioken horietakoa. Jakintza iturri agorrezina...

Manexek arabiera ikasten ari dela esan bezain pronto heldu genion euskaldunok hizkuntza eta kultura horri diogun zorriari. Alkandora bezala, arabiar jatorriko hitz ugari dugu ahotan. Euskal nekazaritzak asko ikasi du arabiarrenetik. Landare mordo bat ekarri zuten guregana, baita haiek hazteko teknikak eta jateko eta maniatzeko erak ere.

Arabiarren fruitu kuttunenetakoa alberjina da, *Solanum melongena*. Teoria bat baino gehiago dago landarea eta haren izenak guregana iristeko egindako bideari buruz. Izenak behintzat, itxuraz, euskaratze bidezidor dotorea osatu zuen: India aldeko *vatinjana*, Pertiako *badingan*, arabiar *al-badinjan*, katalanaren *alberginia*, frantseko *aubergine* eta gure alberjina. Bide horrez bestekoa egin izango du Manexek erakutsi didan landare beraren beste izen dotoreak: “itsas udarea”. Lurrez besteko biderik egin ote du landare horrek guregana iristeko? Itsasoz harantzagoko jatorria adierazi nahi ote du izen horrek?



JOYDEEP-CC BY SA

Alberjina, *Solanum melongena*.

Euskal Herri atlantikoan, baratzezaina ona den jakiteko alberjiniak ondo ematea lortzen duen edo ez galdetzen da. Hemengoak ez eta fruitua ematea zaila delako seinale ederra.

Gure azoketan onartua izan aurretik makina bat gorabehera ikusiko zituen immigrante honek. Paperak eman aurretik, osasunerako txarra zela eta zenbat kontu eta komeria ibili ditugu euskaldunok fruitu honekin! Orain azoka guztietan. Arabiar *al suq* hitzetik omen datorren azokan. ■



### Irakurleak galdezka

Egun on Jakoba! Baratzeko sagarrondoa kargatua zegoen, nonbait, eta alde bat erori zaio, ipurditik. Erabat berezi ez denez, merezi ote du altxatzen saiatzea, aurtengo fruituei eusteko bederen? Barride baten sagarrondoa enborra erditik irauli zen berriki, aurten sagar aunitz nonbait. Eskerrak aunitz!

**Joseba Urrotz Telletxea (Urrotz)**



Kaixo Joseba. Sagarrak bildutakoan moztu eroritako aieka. Bertan geldituko dena ahulduta geratuko da. Arbolaren oreka bien artean osatzen baita. Zein jokabide hartzen duen zaindu. Agian pare bat urtez nolabait eustea komeniko zaio. Kendutako zatiaren aldetik argi

asko izango dik orain eta horrantz hazteko joera azalduko du. Emango dizkizun kimuen eta pujen artean egokien bideratutakoak aukeratu, berdetan onena.

Arrazoi duk aurten maiz ikusiko dugun arazoa da hau. Sagarrondoak mukuru daude... ■

# Blogean duzu dena



BIZI BARATZEA-k bloga ere badu ARGIAren webgunean. Berau baratzezainen topalekua izatea nahi dugu. Zuen galderak, iritziak, baratzeari loturiko hitzak... bidali eta denon artean euskal baratzezaintzaren unibertso oparoa moldatuko dugu. Ikasiz eta irakatsiz. Emanez eta hartuz.

Aurkezpen hitzaldietako bideoak (guk zein bestek grabatuak) eta kronikak daude bertan ikusgai, baita liburuaren bueltan han eta hemen Errekondori eginiko elkarrizketak ere. Blogean noiznaiz kontsultatu ahal izango dugu aurkezpen-solasaldien agenda eguneratua eta bere herrian hitzaldia antolatu nahi duenari bidea erraztuko dio (ikus eskuineko beheko koadroa).

[www.argia.eus/blogak/bizi-baratzea](http://www.argia.eus/blogak/bizi-baratzea) da helbidea. Parte hartu bertan eta zabaldu bere berri baratzezaleen artean!

**Bizi Baratzea** liburuaz Errekondok Hernaniko Karabelekon emandako hitzaldiaren bideoa ikusgai [www.argia.eus/multimedia](http://www.argia.eus/multimedia) helbidean.



## Eskuratu liburua sinaturik

*Bizi Baratzea* ARGIAren erosiz gero, Jakoba Errekondok eskuz sinatutako hitz batzurekin jaso dezakezu liburua.

Egileak herriz herri ematen dituen hitzaldietan ere (ikus ondoko zutabearen non-noiz) baduzu sinaturik eskuratzeko aukera.

## Eskaerak

Salneurria: 23 €  
Harpidedunentzat: 19,50 €

☎ 943 371545  
[www.argia.eus/denda](http://www.argia.eus/denda)  
[denda@argia.eus](mailto:denda@argia.eus)

**Zure saltokian liburua salgai jartzeko, deitu.**



## AURKEZPEN HITZALDIAK

**herriz herri**

**Jakoba Errekondok baratzeari buruzko bere jakintza herritarrekin partekatuko du Euskal Herri osoan.**

Hauek dira ondorengo hitzorduek:

**Irailak 18 Ozaeta**

Ordua eta lekua zehazteke.

**Irailak 22 Alegia**

Ordua eta lekua zehazteke.

**Irailak 23 Algorta**

Egizu! elkarteak antolatutako Uribe Kostako Irakurzaleen Txokoaren barruan. 19:30ean, lekua erabakitzeke (eguraldiaren arabera)

**Irailak 24 Urduña.**

19:00etan, lekua zehazteke.

## ANTOLATU ZURE HERRIAN

Jar zaitez gurekin harremanetan eta behar duzun informazioa eskuratu duzu.

[sustapena@argia.eus](mailto:sustapena@argia.eus)  
☎ 943 371 545

@bizibaratzea · Informazio gehiago: [www.argia.eus/bizi-baratzea](http://www.argia.eus/bizi-baratzea)



# Zezena, tigrea eta benetako basapiztiak

SAN TELMO MUSEOA



**Ezkerrean, Donostiako Txofreko zezen plaza, 1903ko abuztuaren 9an inauguratua. Alboan, handik urtebete eskasera bertan antolatutako ikuskizun makabroaren irudia.**

DONOSTIA, 1904KO UZTAILAREN 24A. Urtebete lehenago zabaldutako Txofreko zezen plazan zezenketa berezia egin zuten. Ekitaldiaren lehen zatia arrunta izan zen; lau zekor jokatu ziren. Baina zekorketak ez zuten interes berezirik piztu, ikusle gehienak bestelako ikuskizuna gogoa hurbildu baitziren plazara.

Ohi ez bezalako borroka iragarri a zuten bigarren zatian: “Bihar zezen plazan guztiok espero dugun tigrearren eta zezenaren arteko lehia hunkigarri eta erakargarria izango da”, zioen *El Correo de Guipúzcoa* egunkariak, bezperan. Hondarraren erdialdean hogeituroko diametroko kaiola handi bat prestatu zuten, eta arratsaldeko zazpiak inguruan bi animaliak plazara eramane zituzten kaiola txikiagoetan sartuta. Batetik *Zesar* izeneko Bengalako tigrea, Marseillako merkataria Ramband jaunak 7.000 liberaren truke saldua. Bestetik, *Hurón* bost urteko zezena, Antonio López Plata ganadu jabeak Guadalquivirreko paduretan hazia.

Bi piztiak tiroka eta kolpeka berotu zituzten, albateak ireki baino lehen, lehiatokia indar batean irten zitezen. Baina borroka nahiko motela izan zen hasieratik. Senak zezenarengandik ihes egiteko esan zion tigrearri. *Hurón*-ek tigrearri astinduren bat ematea lortu zuen eta *Zesar*-ek atzaparrez muturrean zauritu zuen zezena, baina horren ondoren, tigrea

kaiolan bueltaka hasi zen, barrei itsatsita, irteeraren bila, eta zezena erdian geratu zen, marruka eta hondarrean aztarrika, tigrea akabatzeko gogo handirik gabe.

Orduan, ikusleek, erabat desengainatuta, animaliak berriro zirikatzen eskatu zuten. Tigre izutua suzirik eta ziztadaz mugiarazi zuten, eta *Hurón*-ek ederki astindu eta adarkatu zuen felinoa. Orduan bai, *Zesar*-ek gogor eraso zion arerioari, atzaparka eta hozkaka. Zezenak ere oldarkor erantzun zuen eta, furfuriar bultzaka, kaiolako ateetako bat txikitu zuen.

Bi animaliak kaiolatik irten zirenean, izuak hartu zuen plaza, besteak beste eta zaurituta egon arren, tigreak erraz egin zezakeelako salto harmailen gainetik. Mikeleteek pistolak eta Maüsser fusilak zorrotik atera zituzten eta animalien aurka tiroka hasi ziren. Armak gainean zeramatzaten ikusleek eromenarekin bat egin zuten eta, ondorioz, tiroketa itsua hainbat minutuz luzatu zen.

Garaiko kronikek hildako bat (Juan Pedro Lizarriturri) eta hamazortzi zauritu izan zirela jaso zuten. Zerrendan izen ezagunak ere nabarmendu zituzten: Tolosako diputatu Julio Urquijo, Pidaleko markesa... Baina bi biktimen errugabe zerrendatik kanpo utzi zituzten: *Zesar* tigrea hondarrean bertan tiroz akabatu zuten, eta *Hurón* zezena geroxeago, kortan. ■

## Arrastoak

### Korapilo gordiarraren jatorria askatzen

GORDIO Frigiako (egungo Anatolia, Turkia) nekazaria zen, eta haren ondasun bakarrak gurdia eta hari tira egiteko idi pare ziren. Frigiarrek erregea behar zutela erabaki zutenean, orakulari aholkua eskatu zioten eta hark gurdi batean ikusten zuten lehen gizona aukeratzeko esan zien. Hala, Gordio Frigiako errege izendatu zuten, eta monarka berriak, esker onez, Zeusen tenplura eramane zuten gurdia. Haren pertika eta uztarria korapilo berezi batez lotu zituen; soka muturrak korapiloaren barruan omen zeuden ezkutututa eta, horrenbestez, askaezina zen ia. Inork askatzen bazuen Inperio Unibertsala eskuratuko zuen.

Beti ere kondairaren arabera, Alexandro Handiak, Frigia mendean hartu zuenean, korapilo askatu ez, baina ezpataz ebaki zuen.

Horregatik, “korapilo gordiarra” esamoldea gaingiditzen zaila den edo konponezina den eragozpena adierazteko erabiltzen da. ■



**Alexandro Handia korapilo gordiarra ezpataz moztzen.**

ENEKO LARRARTE, TUTERAKO ALKATEA

# «Nafarroan dagokion lekua berreskuratu behar du Tuterak»

Eneko Larrarte (Izquierda-Ezkerra) bizikletaz ibiltzen da hiritik barna. Erriberako hiriburuak inoiz izan duen alkaterik gazteena da, UPN gobernutik ateratzea lortu duena. Bere familia tamaina handiko enpresa baten jabea izanik, Larrartek enpresaren kudeaketan eman zituen gaztaroko lehenengo urteak, irakaskuntzari ekin aurretik.

| KOLDO AZKUNE |

AGINTE MAKILA lortzea “ekaitz biritil” bati zor zaiola uste du Larrartek, hala nola urte luzeetan Milagros Rubio bezalako militanteek oposizioan eginiko lanari. Tuteran Nafarroan garrantzia galtzen ari delakoan dago, kohesio sozialean sortzen ari den urraduragatik. Festen udako zirimolan sartuta, Santa Anako festetan udaletxeak zezenketak diruz ez laguntzea erabaki du.

Tuteran inoiz izan den alkaterik gazteena zara, 35 urte besterik ez dituzu, inork esperientzi gutxi duzula pentsa dezake.

Nire familiak instalazio elektriko eta mantenimendu lanetako enpresa bat zuen, eta gazte gaztetatik, 24 urte bete nituenetik, kudeaketa lana nire gain hartzea egokitu zitzaidan. Horregatik adinarena anekdota hutsa iruditzen zait. Esperientzia eza belarriak luzatuz konpondu daiteke. Zinegotzi guztien artean, gainera, lau gara errepikatzen dugunok, besterik ez. Azken lau urte hauetan Milagros Rubioren ondoan izan naiz, eta Milagrosen 30 urteko jarduna esponja bat bezala xurgatzen ahalegindu naiz.

Zure familiaren enpresak tamaina handia zuen. Ezkerra-Izquierdan bada enpresari-famili baten ondoren-



JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS



goa halako alderdi baten barruan ikustea arrotza egiten zaionik?

Ez dakit. Orain arteko moldeak apurto behar ditugu. Gaurdaino gizartea modu batean zatikatu eta sailkatu izan dugu, eta hori aldatu beharko genuke. Nik Ezkerra-Izquierdan lurra hartu dut, alderdi hau eta Batzarre betidanik nire erreferentziak izan direlako, eta nire etxean berdintsu gertatu da. Bi ezaugarri hauek, enpresari izatea eta ezkerreko alderdi batean egotea, bateragarriak dira. Krisi ekonomikoak langileak gogor astindu ditu, eta langileen artean neurri txiki eta ertaine enpresetako buruak sartzten ditut. Horiek ere beltzak ikusi behar izan dituzte. Egun, karrikan ikusten nautelarik, nirekin batera enpresan aritu ziren langileek maitekiro agurtzen naute. Krisitik atera ahal izateko langile eta enpresari txiki eta ertainen arteko elkarlana sustatu behar da, beraiek baitira lanpostu gehien sortzen dituztenak.

**Nola aurkitu duzue orain arte UPN-ren esku izan den udaletxea?**

Espero bezala aurkitu dugu. Oposizio lanean gain-gainean ibili gara eta bagenekien zein zen gure udaletxearen egoera. Utzikeria da aurkitu duguna, ez dut uste zulo beltzik topatuko dugunik. Udaletxean zegoen anabasa ordenatu behar izan dugu eta langileekin zeuden lis-karrak baretu.

**UPNk Nafarroako alkatetza garrantzi-suenak galdu ditu. Zer dela eta?**

Arrazoi ugari dago. Nik Tuterako kasua ezagutzen dut, eta, besteak beste, UPNk ordaindu du alkatetza 20 urtez edukitzeak eragin dion higadura. Gainera, aitortu behar da UPN ez dela krisiaren arduradun bakarra, bai ordea krisiaz egin duen kudeaketarena, krisiak bereziki hiritar ahulenak astintzea onartu baitu. Honi hauteskundeetan erabili duen beldur-kanpaina gehitzen badiogu, gure udaletxean suertatu den "ekaitz biribila" azaldu daiteke. Gaiztoak datozela errepikatuz ibili dira, eta herri eta hiri txikietan, denek elkar ezagutzen dugula, jendeak ez du apoa irentsi, egunero lanean buru-belarri ikusi gaituztelako.



BLANCA ALDANONDO / TUTERAKO UDALA

**"Bi ezaugarri hauek, enpresari izatea eta ezkerreko alderdi batean egotea, bateragarriak dira".**

**Zein da Tuterari eskaintzen diozuen hiri-eredua?**

Bitxia bada ere, hiri-ereduaz ari garela, hauteskunde kanpainen denek bat egiten genuen. 2008-2009 urte arte Tuterak auzoetara hedatzeko joera ezagutu zuen, 50.000 biztanle lortzekoa, eta horrek udalari egitura eta gastu gehiago eskatu zizkion, bere posibilitateen gainetik zeudenak. Periferian merkataritza-guneak eraiki dira, eta hauekin auzo-etako betiko dendak ito egin ditugu, eta kotxea beharrezkoa izatea ekarri dute. Zaila izango zaigu egindakoa desegitea, baina herritarrengan hiri berri baten aldeko kontzientzia (hurbilagoa, atseginagoa, jasangarriagoa) errotzen ari da.

**Zu bizikletaz mugitzen zara Tuteran zehar. Hiri atseginagoaz ari zarela, bizikletaren erabilera horren barruan sartzen duzu?**

Batzuek irri egiten dute, friki bat naizela leporatzen didate, itxurak egitearren mugitzen naizela bizikletaz. Baina Tuteran nahiko hiri laua da, eta bizikleta dugu mugitzeko garraio biderik arin, merke eta azkarrena. Gure agintaldian bizikletaren erabilera indar egin behar dugu, eta ez horretan bakarrik. Auzoen arteko komunikazioa ere hobetu behar dugu, garraio publikoa ere, eta Alde Zaharra peatonalizatzea hila bizikoa zaigu.

**Milagros Rubioren lanak zer garrantzia izan du aldaketa ahalbidetzeko?**

Erabatekoa. Guk orain alkatetza lortu badugu, hori Milagros bezalako hiritarrek hogeita hamar urte baino gehiagotan egindako orbanik gabeko oposizio zintzo eta iraunkorrari esker da, arerio politikoek ere aitortu diotena. Hor daude Jose Mari Lakarra, Ana Mari Ruiz, Dado, Antonio Cañas...Tutera hobe baten alde borrokatu dute, eta gu lan gogor horren oinordekoak gara.

**Iruñea-Castejon AHT: "Epe motzera, ez du ez hanka ez buztanik, eta horregatik Nafarroako Gobernuak osatzeko akordioetan momentuz bertan behera uztea erabaki dute"**

**Donostian ikasi duzu. Zure familiaren zati bat donostiarra da izatez. Euskaraz hitz egiten badakizu?**

Lehen gutxi eta gaizki egiten nuen euskaraz, eta orain nahiko ahaztua daukat. Hizkuntza Eskolan bigarren kurso-arte ikasi nuen, eta hantxe gelditu nintzen.

**“Nafarroako bi hizkuntzak babestu behar ditugu, aberasten baikaituzte. Ni irakaslea naiz eta eleaniztasuna ona dela ikusten dut”**

**Zergatik daude hainbeste aurreiritzi Nafarroako Erriberako zein Iparraldeko biztanleen artean?**

Bi muturretatik gatazka elikatu egin dute, elkarbizitza lagundu beharrean. Gure harremanak normaldu behar ditugu, pedagogia ugari erabiliz. Nafarroako bi hizkuntzak babestu behar ditugu, aberasten baikaituzte. Ni irakaslea naiz eta eleaniztasuna ona dela ikusten dut. Nafarroan elkarbizitzaren itxaropenari atek zabaldu zaizkio.

**Orain ez hain aspaldi Nafarroa osoan jotak entzutea oso ohikoa zen. Azken hamarkadetan eskuin 'navarristak' jotak bereganatu dituela ematen du.**

Bandera eta sinboloekin antzera gertatzen da. Askotan joten jatorria ahaztu egiten da. Jotek jatorri herrikoia dute, aditz honen zentzurik onenean, eta herriak joten bitartez bere debozioak, zaletasunak, arazok agertzen ditu. Hori da jota eta nafar guztiena da. Gustuko izan ala ez, jota bat entzuten duenari barruan zerbaite mugitzen zaio. Zorionez, denborarekin herritar guztien eskuetara itzuliko da.

**Sinboloez ari zarela, zer iruditzen zaizu Iruñeko txupinazoan ikurriña jarri izana?**

Badakit batzuk gogaitu egin direla hori ikusita, eta badakit beste batzuk harro-harro daudela jarri dutelako. Sinboloen aferari nik ez diot garrantzirik ematen. Horretan ere gauza asko normalizatu egin behar dira, eta gai hori ere, noski, landu behar dugu. Baina ez zait iruditzen bizi dugun krisi egoera baino garrantzitsuagoa denik. Gaizki pasatzen ari den jendea da inportanteena, eta horretaz arduratu beharko genuke.

**Tutera Nafarroako bigarren hiria da. Nafarroaren barruan pisu espezifikoak galdu al du?**



INIGO URIZ / ARGAZKI PRESS

**“Azken lau urte hauetan Milagros Rubioren ondoan izan naiz eta Milagrosen 30 urteko jarduna esponja bat bezala xurgatzen ahalegindu naiz”.**

Bai, galdu du. Inbestidura diskurtsoan aipatu nuen, Tuterak dago-kion lekua berreskuratu behar duela. Hemengo buruzagiek ez dituzte behar bezalako aliantzak egin Nafarroako Gobernuarekin, Erribera garatu behar dela kargu egin daitezzen, kohesio sozialari begira batez ere. Tuteran langabetu kopurua Nafarroarena baino 7 puntu handiagoa da, eta ez da Erriberako handiena. Badakit Erribera ez dela maldan behera doan zonalde bakarra; hori ditugu Pirinioak edo Sakana ere..

**Castejonen ari dira Abiadura Handiko Trenaren lehenengo pausuak ematen. Krisi honen barruan egonik, hain beharrezkoa da AHT?**

Abiadura handiko gaiaren barruan informazio asko falta zaigu. Erriberak Nafarroako beste zonaldeekin ongi konektatua egon behar du. Lehenik, pertsonak mugitu behar dute, eta guk tren sozialaren aldeko apustua egiten dugu, jendeak bidezko prezio bat ordainduta trenez mugitzeko modua izan dezala, autoa baino askoz ere jasangarriagoa baita. Oraindik, aitzitik, P15 autobidearen bidesaria ordaindu beharrean gaude, zerbitzu askotarako Iruñeraino igo behar badugu ere, eta hori ez da justua. Honetaz aparte, ez zaigu oso zentzuzkoa iruditzen trenbidea Europako merkantzien garraio sareari ez lotzea.

Ordea, merkantziak ateratzeko

erabiliko balitz, teknikoki bideragarria den edo ez debatitu beharko litzateke. Epe motzera, ez du ez hanka ez buztanik, eta horregatik Nafarroako Gobernua osatzeko akordioetan proiektua momentuz bertan behera uztea erabaki dute. Are gehiago, Espainiako Gobernua ez da obren bere zatia egiten ari, eta inondik inora doan trenbide bat izango litzateke, Castejonen amaituko zena. Beste lehenetasun batzuk ditugu, Iruñetik Castejoneko doan trenbide bat egitea baino.

**Nafarroa udako jai-giroan sartu da. Zezenketen aldekoa zara?**

Gure udaletxean sentsibilitate antzizak daude. Animalien eskubideen aldeko eta tratu txarren aurkako sentsibilitatea dutenak daude, zezenketaren aldekoak ere badaude... Azken legegaldi honetan udal-txetik 20 langile baino gehiago kalera dituzte, babes ofizialeko pisuen zain 30 familia baino gehiago daude, liburuak erosteko edo ikasketxeetan bazkaltzeko laguntzak emateko orduan zailtasunak izan ditugu. Zezenketak diruz laguntzea ez dugu lehenetasun bat bezala ikusten, eta hala jakinarazi diogu plazako enpresariari eta zezenketen inguruan dabilzaneiei. Hurrengo urteotan ez ditugu zezenketak diruz lagunduko. Hori bai, entzierroak eta bigantxak bai lagunduko ditugula, ekitaldi sozialak direlako, eta denek parte hartzeko aukera dutelako. ■



# Boiseko egunak

Euskal diasporak zita bat dauka Idahoko hiriburuan: bost urtean behin egiten den Jaialdin 45.000 lagunetik gora bilduko dira berriz, dantza eta herri kiroletik harago, komunitate izaera sendotzeko asmoz. Autoafirmazio ariketa erraldoi hori, euskaldunek AEBetan duten erakusleihu ikusgarriena bilakatu da edizioz edizio, eta itsasoz alde honetako agenda kultural eta politikoan ere hasi da eragiten.

| URKO APAOLAZA AVILA |



Emozio askotako atmosfera sortu ohi da Boiseko kaleetan Jaialdi ospatzen den bakoitzean.

MENDEBALDE URRUNEKO bihotzean, basamortu eta mendien artean, kokatzen da Boise, 200.000 biztanleko hiria. Euskaldunak behinola artzain ibilitako lurralde hori AEBetako euskal komunitatearen gune nagusietakoa da gaur egun. Ez kasualitatez bertan egiten da dias-

porako festarik handiena, Jaialdi. 1987an sortua, edizioz edizio herri-tarren parte-hartzea handituz joan da; 2010ean errekor guztiak gainditu zituzten: antolatzaileen estimazioen arabera 45.000 lagun inguru elkartu ziren munduan ezagunak diren hainbat euskal kultur espre-

soren bueltan egindako ospakizunetara.

Jaialdi antolatzeaz arduratzen den Boiseko Euzkaldunak euskal etxeak jadanik prest dauka aurtengo egitaraua, uztailaren 28an hasi eta abuztuaren 2ra arte luzatuko den festarako. Estadio eta aretoetan egingo

diren dantza eta herri kirol emanki-zunetarako tiketak urtarrietik daude salgai interneten; aurtengo nobedade izan den Bilboko Athletic eta Mexikoko Tijuana lagun arteko futbol partidarako sarrerak ere sarean jarri zituzten salgai, 85 dolarren truke. Norvegiagoka uztailaren 18an jokatu zen eta Albertsons Stadiumeko zelai artifizial urdin kolorekoa belar naturalez aldatu behar izan zuten horretarako.

Euskal Herriko lau talde aukeratu dituzte egitarau ofizialean parte hartzeko: Iruñeko Ortzadar dantza taldea, Durangoko Luhartz eta Soralezeko The Crazy Wheels Band musika taldeak, eta Orioko Irrintzi erraldoi konpartsa. Xabi Paya eta Nerea Ibarzabal Salegi bertsolariak ere ariko dira, baita herri kiroletako makina bat lagun ere. Baina Boiseko *Basque Block* delakoa –euskal jatetxe, museo eta zentroak biltzen dituen gunea– AEBetako euskal etxe ugariatako dantza taldeen eta Euskal Herritik euren kasa joandako beste talde askoren jai giroz bustiko da baita ere.


Tour operadoreak jo eta su ari dira Jaialdi dela-eta pakete turistiko bereziak eskaintzen: urliak New York eta Las Vegas bisitatzeko aukera ematen du, sandiak ikuskizunetarako sarrerak prezioaren barne daudela dio, berendiak aurkezle ezagun baten konpainia jarriko dizu... Ehunka boluntarioaren itzalpeko lanean oinarrituagatik, egiaz, festa komertziala ere bada hau: marka babesleen zerrendan Coca-cola edota Keybank daude esaterako, eta kamisetak ez ezik zerbeza jarrak eta biserak ere eros daitezke Jaialdiren logoarekin. Baina ez dugu zertan kapitalismoaren bihotzeraino jo behar halakoak ikusteko, gertuago ere ohituta gauzate.

### CNNren faboritoen artean

Hedabide esanguratsu zenbaitek arreta jarri dute Boisen egingo den festibalean. CNNk, adibidez, aurten AEBetan bisitatu beharreko 15 toki “bitxien” artean jarri du Idahoko hiriburua, Jaialdi eta euskal komunitatea aipatuz: “Dantza eta jokoak, *jai alai* barne, euskaldunentzat ezinbestekoak dira –dio telebista kateak–. Eta jaialdian egoterik ez

## ‘Amerikanuak’ 40 urte

1975EAN Jon Bilbao historialariak eta William A. Douglass antropologoak *Amerikanuak. Basques in the new world* liburua kaleratu zuten. Argitalpenak itu bat suposatuz, ordura arte euskal emigrazioaren historiari ezer gutxi baitzegoen idatzita.



Urtemuga ospatzeko hainbat ekitaldi eta konferentzia antolatu ditu Renoko Center for Basque Studiesek. Tartean, Boise State unibertsitatean *Joan-etorri* sinposiuma izango da uztailaren 29an, Jaialdirekin bat eginez. Ez da kasualitatea: duela 40 urte ere, unibertsitate horretako ikasleak Oñatira bidaiatzen hasi ziren programa bati esker.

Sinposiumean makina bat gairi buruz hitz egingo dute eta *Amerikanuak*-en publikaziotik lau hamarkada igaro direnean, munduko euskal ikasketak zertan diren hausnartuko dute adituek.

Douglassek jadanik lanari buruzko hainbat iritzi plazaratuak ditu *Mr. Basque* autobiografian: “Liburuak trantsizio momentu bat jaso zuen, horren jabe ez baginen ere. Garai baten amaieran geunden, artzaintzak bereak egin

zituena, emigrazioak ere bai, eta euskal erakunde ugari sortzen ari zen, North American Basque Organization (NABO) kasu. (...) Jon eta biok liburua euskal diasporaren historiari buruz gisa ulertu genuen, lana ez da behar bezain beste kritikatu”.

Douglasen ustez, liburua oso deskriptiboa da eta jadanik oso gutxi lantzen den enpirismoan oinarrituta dago: “*Amerikanuak*, euskal artzaina bezala, historiara igaroda”, dio antropologoak.

40 urteotan ez dira gutxi izan euskal emigratioaz eta diasporaz publikatu diren liburuak, tesiak eta baita dokumentalak ere. Ikerkuntzan asko aurreratu da eta teoria atabikoak gaundituta daude. Egungo joera, testigantza eta lekukotasunen bidez euskal jatorriko amerikarren errealitate anitzak islatzea da.

Hain justu, Jon Bilbaoren jaiotzaren mendeurrenean Etxepare Institutuak eta Nevadako Unibertsitateak sortutako katedrari esker, Pedro J. Oiarzabal Deustuko unibertsitateko ikerlariak Ipar Amerikako euskaldunen ahozko historia jasoko du *Memoria Bizia* proiektuarekin.

baduzu, beste edozein momentutan joan zaitezke, jan, edan eta euskal kultura zer den ikastera”.

**Komunitate baten partaide izateko sentimenduak bultzatuta jotzen dute Amerikako euskal kolektibitateek gurean errazegi folklore hutsera bazterturiko espresio bideetara**

Jaialdi aukera ekonomiko itzela da Idahoko enpresa esanguratsuak eta multinazional garrantzitsuak biltzen dituen Boiserentzako. Bertako eta kanpoko euskaldunak ez ezik, beste komunitateetako jendeak ere erakarri ditu: “Zeinek ez luke nahi halako herri zirrargarri baten parte izan?”, dio irlandar-eskoziar jatorria duen Boiseko Patti Murphy idazleak, *Idaho Statesman* egunkariari erantzunez. Murphy duela urte batzuk hasi zen Biotzetik abesbatza kantatzen “kultur-familia baten partaide” zela sentiarazten ziolako.

Komunitate baten partaide izateko sentimenduak bultzatuta jotzen





EUSKO JAURLARITZA

**2010eko edizioan Patxi López lehendakari gisa Jaialdira joan izanak ikusmina sortu zuen. Aurten Urkulluk ere iragarri du han izango dela.**

dute Amerikako euskal kolektibitateek gurean errazegi folklore hutsera bazterturiko espresio bideetara. Ezaugarri propioak dituen iruditeria eraiki dute diasporan, eta Jaialdi moduko ospakizunak euskal kontzientzia hori transmititzeko tresnak dira.

Hau ez da, ordea, bost urtean behin loratzen den baratza. AEBetako euskal etxeetako jarduna egunero ongarriritu behar da, eta Jaialdi finantzabide baliotsua izan ohi da horretarako, baita euskara sustatzea helburu duten proiektuentzat ere, Boiseko Ikastola kasu. Hain justu, duela hilabete eskas egoitzaz aldatu du AEBetako ikastola bakarrak, hiriaren erdigunean dagoen Broadway kalera, eta orain ikasle gehiago hartzeko eta zerbitzu hobek eskaintzeko aukera dauka: “Ikusgarritasunean ere irabaziko dugu”, azaldu dio Euskalkultura.com atariari Oihana Andion irakasleak.

Astiro-astiro hizkuntza tokia hartzen ari da euskal diasporako nortasunaren abaraskan. Iparraldeko Amerikako zenbait euskal etxetan euskarazko eskolak ematen dituzte aspaldiko urteotan, Eusko Jaurlaritzaren HABE erakundearekin sinaturiko hitzarmenari esker –150 lagun baino gehiago ari dira euskara ikasten–; Boisen berrikitan topaketa egin dute *Euskara Mun-*

*duan* programaren barruan ari diren dozena bat euskara irakaslek.

### Politikarien agendan

Jaialdik hartu duen garrantzia eremu politikora ere iritsi da eta Euskal Herriko zenbait instituzioen agendan eragitea lortu du. Duela bost urte ikusmina sortu zuen orduan lehendakari zen Patxi Lopezen bisitak; lehen aldia zen Euskadiko sozialisten buruak izaera horretako bidaia egiten zuena diasporara. Bestalde, Bizkaiko Ahdun Nagusi Jose Luis Bilbao ere Jaialdi'10-en izan zen eta horrek nolabaiteko eztabaida ekarri zuen protokoloari zegokionez.

Aurten Iñigo Urkulluk iragarri du Jaialdin izango dela, eta ospakizunetan parte hartzeaz gain, besteak beste Idahoko Gobernadorearekin eta Boiseko alkatearekin ere

batzartuko da. Era berean, Boise State Universityrekin elkarlanerako hitzarmena sinatuko du.

Urkullu New Yorkeko euskal etxearekin duela bi urte izandako polemika sonatuaren ondoren itzuliko da AEBetara –mendeurrena ospatzeko ekitaldian desadotasunak izan zituzten euskal etxeak Donostiako alkate Juan Karlos Izagirreraren bideo bat erakutsi nahi izan zuten–. Dena den, badirudi urak bere onera etorri direla eta EAJren Jaurlaritzak diasporarekiko harreman oso estua mantentzen duela, historikoki izan den moduan.

Harreman horiek are gehiago sendotu eta datozen urteetan izango duen atzerri politika azaltzeko beste geltoki bat Gasteiz izango da, lau urtean behin egiten den Euskal Gizataldeen Mundu Biltzarra ospatuko baita bertan urriaren 7an. Eusko Jaurlaritzak atzerrian *Basque Country* marka indartzeko ekimena jarri du abian, Marian Elorza Kanpo Harremanetarako idazkariaren ustez enpresak munduan lehia-tzen diren bezala lehiatu behar dira herrialdeak “inbertsioak, turismoa eta talentua” erakartzeko.

Urkulluk euskal kolektibitateei aurten bidalitako gabon-mezuan “Euskadi nazioartekotzeko estrategia” hori aipatu du: “Gure herria nazioartera eramateko plan horretan zuek ere atxikita zaudete”, esan die euskal etxeei. Zerumuga ere jarri du lehendakariak: 2020 urterako nahi ei ditu ekonomia bizkortuta, bakea sendotuta eta estatus politiko berria.

Ikusiko da zein rol jokatzeko gai den euskal diaspora bide horretan. Oraingoz behintzat, erabakitzeko eskubidearen aldeko mugimenduak Jaialdiren erakusleioa baliatuko du horretaz hausnartzeko. Gure Esku Dagok, Agirre Lehendakaria Centerrek eta New Yorkeko Columbia Unibertsitateak antolatuta hitzaldi zikloa izango da uztailaren 30ean Boiseko Grove hotelean. Bertan parte hartuko dute Gure Esku Dagoko Jon Camiok, Joshua Fisher Columbiako Unibertsitateko irakasleak eta Ibarretxe lehendakari ohiak. *Together or nothing at all* da Ibarretxeren mintzaldiaren izenburua: edo elkarrekin edo ezer ere ez. ■

**Euskal etxeetako jarduna egunero ongarriritu behar da, eta Jaialdi finantzabide baliotsua izan ohi da, baita euskara sustatzea helburu duten proiektuentzat ere**

# Errekurtso ekonomikotik gutxi baina sozialetik asko duen ortua

| ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA |



## Baratzta taldea

**Proiektua:** Baratzte komunitarioa.  
**Kokapena:** Aranbeiti auzoa (Bilbo).  
**Noiztik martxan:** 2011 urtetik.  
**Kide kopurua:** Hamar lagun inguru.  
**Helburua:** Hiritarrak nezakal mundura gerturatu eta lurrarekin harreman zuzenagoa izatea.



BARATZTA TALDEA

Deustuko gaztetxean hasi ziren ortu komunitarioaren proiektuarekin, baina txiki geratuta, Aranbeitiko bizilagun baten lur zatia hartzeko aukera izan zuten.

AGIRRE LEHENDAKARIAREN etorbideko ke zurrunbilotik atera eta pauso gutxira, Aranbeiti auzoan, hiri handiak ezkatzen dituen altxor berde txikietako batean dabil Saioa Bacigalupe. Aitzurra eskuan tomate ipurdiak harrotuz bere txanda betetzen ari da Deustuko Gazte Asanbladatik bideratutako ortu komunitarioan.

Baratzta taldearentzako Aranbeitiko ortua produkzioarako lur zatia baino gehiago da, ikasketa prozesu bezala ikusten dute. Taldean daramaten ikasketa prozesua. Gehiago dakitenek gutxiago dakitenei irakasten dietela ari dira ezagutzen hiritarrak nekazal-mundua eta ari dira beste modu batera harremanetan jartzen naturarekin, lurrarekin. Ortu horri, baina, ez diote zentzurik ikusten komunitarioa ez bada; ez dute lur zatia banatu eta bakoitzak bere baratzetxo edukituz dezan nahi. Ezagun dituzte horrelako eredu batzuk, baina ez daukate kolektiboak ematen dion indarririk. Erabakiak asanblarioak izaten dira Aranbeitiko baratztean, eta honek prozesua

mantsotzen badu ere taldearen pauso bakoitza sendoagoa dela iritziz diote.

### Nola egiten da produktuen banaketa ortu komunitarioan?

Barre egiten dute galdera hori entzuten dutenean ez baitaukate formula zehatzik horretarako, logika besterik ez. Kide bakoitzak badauki guztien lanak emandako fruituak guztienak direla, eta norberak kalkulatu du zer eta zenbat bildu behar duen. Konfiantzan oinarritutako bilketa sistema deitu diezaiokigu, familia edo lagunarteko banaketa arrunt batean egiten dugun moduan.

### Haziak sortu eta trukatu

Haziak erosi beharrik ez dute izaten Aranbeitin. Urtean biltzen joaten diren produktuetatik haziak gorde eta datorren urterako prestatzen dituzte, eta aldi berean beste talde eta norbanako batzuekin trukatu dituzte beste batzuk. Zenbait hazi inguruko edo

antzeko esperientzia ezagutzen ari direnen artean banatzen dituzte, baina badago horretara bideratutako talderik ere, Haziaren Sarea esaterako. Bertakoak diren produktuak ereiten dituzte ahal duten neurrian, eta ez bakarrik baratztean, orain hilabete batzuk inguruko txokoetan Euskal Herriko zenbait fruta-arbola aldatu baitzituzten.

Lurra hobetuz doa. Lau urteotan aldaketa nabaria izan dela diote baratztekoak. Lur buztintsua dute, baina landuz doazen heinean aldatuz doa; errotazioak egiten dituzte beti produktu berdina leku berean ez jartzeko, eta eurek egindako konpostetik ateratako ongarriak ere *mejora* handia egin diola aipatzen dute.

Errekurtso ekonomiko gutxirekin aurrera ateratzen den ortu honetan lanabes gehienak ere inork utzi edo emandakoak dira, eta beharrezko materiala inguruak eskainitakotik eta eskulanaz baliatuz lortzen ahalegintzen dira. ■



BEGOÑA GARMENDIA  
AZKOITIKO UDALEKO IDAZKARIA

# «Espediente guztiak bi hizkuntzetan egin behar al dira?»

Begoña Garmendia Errezilgo Udalean idazkari-kontuhartzaile izan zen 1988tik 1997ra arte; ordutik 2006ra arte, Usurbilgo Udaleko idazkari. Gaur egun Azkoitiko Udaleko idazkaria da. Udal barruko jardueran hizkuntzak nola kudeatzen diren ikusi du. Euskara hutsean aritzen saiatzeko, etengabe, lege zirrikitu bila aritu behar dela dio.

| ONINTZA IRURETA AZKUNE |

**Azkoitiko Udalean, Carlos Urquijo Espainiako Gobernuaren EAEko ordezkariaren bisitarik izan al duzue?**

Bere garaian udalak onartutako kontratazio irizpideen kontra egin zuen. Foru Aldundiko Euskara zuzendaritzarekin batera aztertu genuen, eta autonomia erkidegoko Auzitegi Gorenak bertan behera botatzeko aukera asko zeudenez, atzera jotzea erabaki genuen. Orain, lehen ez bezala, kontratazio espediente bakoitza aztertzen dugu, eta bertan txertatzen dugu hizkuntza irizpidea. Auzia horrela bukatu zen.

**Errezilen, Usurbilen eta Azkoitian aritu zara lanean. Zein ondorio atera dituzu hizkuntzaren kudeaketari dagokionez?**

Galdera zaila da hori... Niretzat, garrantzitsuena, marko orokorrak zer esaten duen kontuan hartzea da. Alde batetik, esaten du herritarrek eskubidea daukatela administrazioarekin dituzten harremanetan beraiek aukeratzeko hizkuntza, eta bestetik, administrazioak herritarren eskubidea errespetatzeko betebeharra duela.

Kontua da hori dena euskararen normalizazioarekin nola lotzen den. Euskararen Legeak dio administrazioak bi hizkuntzetan aritu behar duela, beraz, horrek zer esan nahi du espediente guzti-guztiak bi hiz-



**“Nola norbaitek espedientearen zati bat gaztelaniaz eska dezakeen edo eskatu duen, hasieratik egingo dugu dena gaztelaniaz. Ez du zertan.”**

kuntzetan egin behar direla? Nire ustez, elebitasun mekanikotik harago joan behar dugu, bestela erdara nagusitzen da, erremediorik gabe.

**Euskararen Legea aipatu duzu.**

Bere garaian aurrerapena izan arren, lege markoa oso murrizta da eta zaharkituta dago, ez da gai euskararen normalizazioaren prozesua aurreratzeko udal administrazioetan. Batez ere Euskararen Legeaz ari naiz. Une honetan oztopo handienetarikoa da euskaraz funtziona-

tu nahi duten udalentsat, edo euskararen normalizazio prozesuan aurrerapausoak eman nahi dituztenentzat.

**Zein da aukera, orduan?**

Euskararen Legea aldatzea, noski.

**Eta Udal Legea?**

Hizkuntza aukeratzeko herritarren eskubidea eta administrazioaren betebeharra. Horiek baldintzatu behar dute espediente guztien tramitazioa? Horren ondorioa izaten

da espedienteak erdaraz bakarrik, edo gehienez, ele bitan osatzea. Kontua da zer egiten dugun euskararen normalizazioan pausoak emateko, adibidez, espedienteak euskarra hutsez izapidetzea, edo herritarrek gaztelania erabiltzea aukeratzen dutenean, espediente horien zatiak (barne-txostenak, ofizioak...) euskaraz egitea.

**Zer esan nahi duzu, marko horren arabera udalek espediente osoak gaztelaniaz egiteko joera dutela?**

Joera baino irizpidea. Nola norbait espedientearen zati bat gaztelaniaz eska dezakeen edo eskatu duen, hasieratik egingo dugu dena gaztelaniaz. Ez du zertan. Herritarrek bere eskaera gaztelaniaz egin dezake, erantzuna ere gaztelaniaz emango zaio, eskatuko du espediente osoko halako zati nahi duela... baina gainerako guztia euskaraz mantentzea daiteke.

Udal Legeak ahalbidetu dezake hori. Ez dakit zergatik egiten dien aipamen berezia aktei, zergatik ez duen aipamen zabalagoa egiten, gaintzeko espedienteak ere zergatik ez dituen kontuan hartzen.

**Ausardiak jokatu behar dela diozu.**

Ausartak, baina ez arduragabeak. Dena dela, gehienetan legearen hitzez hitzeko interpretaziora mugatu gara. Euskararen Legeak dio ele bitan egin behar dela, bada dena ele bitan egingo dugu. Bi zutabekoarekin bukatu behar dugu, gure udaletan euskararen erabilera normalizatua lortu nahi badugu. Ausarta diodanean esan nahi dut dauden aukerak aztertu behar ditugula, udalerrri bakoitzaren errealitatea ahaztu gabe. Nire ustez, udalerritan lan egiten dugunok galdera hau egin beharko genioke geure buruari: Nik zer egin dezaket nire eguneroko jardunean? Seguru nago gauza berriak egingo genituzkeela.

**Badaude zirrikituak?**

Bai. Udaltop jardunaldiko [Lasarte-Oria, apirilak 29-30] hitzaldian esan nuen, espedienteak udaletako jardueraren oinarria dira eta horiek aztertu behar ditugu. Zein motatakoak dauden, nori zuzentzen zaizkion, zeinek hasten dituen, eta abar. Sailkatu eta gero, bakoitzarekin nola jokatu erabaki beharko genuke.

**“Euskararen Legea, une honetan, oztupo handienetarikoa da”**

**Udalek egiten dute hori?**

Udal bakoitzak ahal duena egiten du. Lan orokorragoa egin beharko litzateke. Diputazioek badute udalei laguntzeko ardura. Zergatik ez aholkularitza lana gai honi lotuta? Oso zaila da udal bakoitzak egitea.

**Legeen zirrikituak baliatzea diozu, baina ez duzu ukatuko mugak badirela.**

Bai. Aipatu dut Euskararen Legea. Egia esan, esan genezake espedienteak kudeatze mailan estatuko legea, 92koa, hori baino zabalagoa dela. Espedienteak tramitatzeko garaian legedi autonomikoari helduko zaio-la dio. Bagatuz hona, eta zer gertatzen da? Lehenengo oztupoa Euskararen Legea dela.

**Udal Legeaz zerbait gehiago?**

Konpondu ez diren arazoak izaten segitzen dugu. Ez da baliatu legea horretarako. Adibidez, akten gaiaz Irurako Udalaren kasuan emandako sententzia eredugarria da. Epaileak garbi dio: hizkuntza eskubideen titularrak herritarrek dira, ez administrazioak. EAEn kokatutako administrazio batek esaten badio udal bati dokumentazioa gaztela-

niaz bidaltzeko, epai horrek dio administrazio horrek ez daukala inolako eskubiderik euskarazkoaren itzulpena eskatzeko. Administrazioak bi hizkuntzetan izan behar du gaitasuna. Beraz, ez dago legitimituta itzulpena eskatzeko.

**Notarioak ere zaku horretan sartzen al dituzu?**

Erakunde publiko-pribatuak dira. Tokian tokiko hizkuntza errespetatu behar dute eta ezin gaituzte itzulpena egitera derrigortu.

**Epaitegiak berdin?**

Noski. Une honetan, ez dira ari euskararen ofizialtasuna errespetatzen, udaloi erreklamatzeko dizkiguten espedienteetan.



**Beti hala izango zen, ezta?**

Ez, atzerapausoa eman dugu. Gogoratzen naiz, Errezilen eta Usurbilen egon nintzenean, euskaraz egindako espediente zegoen bezala bidaltzen genuela epaitegira, eta epaitegiak Eusko Jaurlaritzaren itzultzaile ekipoa zeukan, beharrezkoa bazen itzulpen lanak egiteko. Eskuduntza Jaurlaritzarena da, zalantzarik gabe. Une honetan, betebeharrak udaloi jarri digute. Orain dela gutxi ia 1.000 orriko espediente izan dut eta den-dena itzuli behar izan dugu epaitegira bidaltzeko garaian. Nola berma genezake orduan, euskararen erabilera normalizatua udal espedienteetan?

**Legeren bat aldatu da ala?**

EAEko Auzitegi Nagusiak irizpide orokorra aldatu du eta geuk itzultzeko obligazioa ezarri digu. Indarrean dagoen legean oinarritu da, esanez ele bitan egin beharra dugula. Baina kasu horretan, Eusko Jaurlaritzaren ardura nabarmendu behar da, berari dagokiolako epaitegietan baliabideak eskaintzea. ■

Babeslea: IVAP

 <p>HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA</p>  <p>euskal.eus</p>	 <p><b>Enplegu Publikoa</b></p> <p>Lan-eskaeraren harpidetza Lan-jeltuak (Eusko Jaurlaritza) Beste administrazioetako lan-eskaerak Hautaketak Osoakidetzak: 2014-15eko Enplegu Publikorako eskaerak Ertzakitzearen XXV. Promozioa</p>	 <p><b>Prestakuntza</b></p> <p>Administrazio orokorra Toki Administrazioak Foru erkandialak Berriakiko hizkuntza prestakuntza EYETU Prestakuntza jardueren homologazio prozesuak</p>	 <p><b>Euskara</b></p> <p>Euskararen Auzitegiak Hizkuntza eskakizunak Berezikiak hizkuntza prestakuntza Argitalpenak Euskaraz lan egiteko baliabideak IZO - Hizkuntza Zeharritze Ofiziala</p>
--	--	---	--



## TERMOMETROA

### FRACKANPADA

# «Gasa orain atera ez arren frackingaren tentazioa hor egongo da»

Mikel Otero Fracking Ez plataformako kidearen esanetan, mugimenduari bere burua birdefinitzea egokituko zaio udazkenean.

Testua eta argazkia:

| UNAI BREA |

EAEn frackinga eragozten duen legea onartzeak eragin desmobilizatzailea izango ote zen beldur izan zineten?

Galdera behin eta berriz entzuten ari da Frackanpadan. Kanpotik etorri diren taldeek diote Euskal Herrian indartsu ibili garela diote, askorentzat eredugarriak izan garela. Orain legea lortu dugu, eta zer gertatuko da? Hausnarketa sakona egin behar dugu, badakigulako beste leku batzuetan legea etorri denean jende askok pentsatu duela: “Dagoeneko lasaitu gaitzke”. Guk ez dugu borroka amaitutzat eman nahi, ez dugu ahaztu behar beste aldean lobby boteretsu bat dagoela, orain atzerapauso bat eman badu ere berriz etorriko dena.

Nor da lobby hori?

Kontuan hartu behar da, azken batean, frackinga beste urrats bat dela erregai fosiletan oinarritutako ereduaren barruan. Gero eta garbiago ikusiko da hori, konbentzionalak



“Ez dugu borroka amaitutzat eman nahi, beste aldean lobby boteretsu dago eta”, dio Oterok.

agortzen hasi diren honetan. Frackingaren aukera beti egongo da hor, gasa orain atera ez arren tentazio hori behin eta berriro bueltatuko da. Horri buelta ematen ez badiogu hor edukiko dugun Pandoraren kutxa bat izango da.

EAE legea positiboki baloratu duzue. EAJk, aldiz, esan du babes handiago izango zela eurek proposatutako bost urteko moratoria gehitu balitzaio onartutakoari.

Guk beti esan dugu herritarren ahotsa eraman nahi genuela Legebiltzarrera eta teknikoki ez geundela bereziki trebatuta. Hala ere kontsultak egin ditugu aditu batzuekin, eta esan digutena da kontrakoa dela: moratoriak segurtasun eza ematen diola legerari, arau orokorra izango litzatekeelako eta hain zuzen orokortasun horretan oinarrituta etorri direlako Madrilgo Gobernuaren helegiteak eta Konstituzio Auzitegiak beste lege batzuk bertan behe- ra utzi izanak.

Onartu dena ontzat ematen dugu, baina onena da, gure ustez, legearen prozesuak, sinadura bilketak, e.a., balio izan duela frackingaren aurkako mugimendua indartzeko. Jende asko saretu gaitu, eta herritarren babes izugarri horrek balio izan du alderdi politikoei atzera egiteko; gaur egun ez dago frackingaren alde azaltzen den alderdirik.

**Nafarroak eman zuen lege debekatzaileria, estatuak bertan behera utzi duena. EAEn bidea ispilu izan daiteke Nafarroan?**

Frogatzen bada EAeko legeak benetan frackinga gelditzen duela, iruditzen zait eredugarria izan daitekeela Nafarroan berdin egiteko. Ahal dela, herri mugimenduak sustatutako behetik gorako prozesu baten bidez. Alderdikeriek kutsatuko ez duten prozesu bat, alegia. ■

## ARGIA ere Frackanpadan izan da

SUBILLA GASTEIZEN, Euskal Herriko lehen putzuak zulatzekoak ziren inguruan egin da frackingaren aurkako eta bestelako energi eredu baten aldeko nazioarteko kanpaldia. 200-300 lagun izan dira bertan etengabe, egun eta gau, eta gehiago joan-etorrian. Balorazio sakonagoa egiteke, antolatzaileak pozik agertu ziren ekimenaren azken egunean. Esan zuten, Frackandaparen arrakastak erakusten du EAEn haustura hidraulikoa eragozten duen legea onartzeak ez dituela lokarrarazi teknika horren aurkariak.

ARGIAK ere ipini du aletxo kanpaldian. Besteak beste, *Gerorik ez da animaziozko dokumentalaren euskarazko bertsioa eman genuen lehen aldiz, eta hari buruzko eztabaida gidatu genuen ondoren. Halaber, Jakoba Errekondok *Bizi baratztea* liburuaz jardun zuen Frackanpadaren egunean.*

## Nork ez dio begirunea euskarari?

ARABAN, Bizkaian eta Gipuzkoan behintzat, %97ak dio euskara begirunez tratatu behar dela. %14ari berriz, mesfidantza sortzen dio euskarak. Bestelako ondorioak ere atera dira EGODEk egindako inkestan: EAEko biztanleen %85ak uste du euskarak balio pragmatikoa duela; %81ak sustatu egin behar dela; eta %61ak aldarrikatu egin behar dela.

Inkesta, asmo zabalagoko egitasmoaren atal bat baino ez da. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak EGOD egitasmoa du abian. Euskararen Gaineko Oinarrizko Diskurtsoen lanketa egitasmoa da. Hizkuntzaren gaineko oinarrizko diskurtsoak aztertu, kontrastatu, berri eta bateratze bidean jarri nahi ditu HPSk. Horretarako, modu bat baino gehiago erabili dute: inkestak, eztabaida taldeak, adituen foroa eta azterketa bibliografikoa, besteak beste. Bost multzoren gainean egin dute lan: errespetua, balio pragmatikoa, sustapena, aldarrikapena eta mesfidantza.

EGODen lanketan babes handiena jaso duten ardatz estrategikoak ondokoak dira:

- Elkarkidetzan oinarritutako diskurtso euskaltzalea sendotu behar da.
- “Euskara beharrezkoa dela” pentsaeratik, “hizkuntzak beharrezkoa dira” pentsamoldera aldatu.
- Hizkuntza-politika eztabaida ideologikotik, ika-mika zein interes alderdikoietatik ateratzea.
- Ikuspegi identitarioa ikusmolde berrietara zabaldu eta osatu.
- Berezko esanahi komunitarioa, atxiki ohi zaion eremuarena baino askoz zabalagoa da: abertzaletasunaren ikurra izatetik, herritar guztien ikurra izatera jauzi eginez.
- Euskara balio positiboekin eta bizipen gustagarri pertsonalekin lotu.
- Euskararen hautemate eta irudia hobetu, arreta batez ere gazte jendearengan jarritz.
- Hiper-zuentasuna atzean utzi.



Ezkerretik eskuinera, Iñaki Martínez de Luna, EGOD egitasmoaren zuzendaria, Patxi Baztarrika HPSko sailburuordea eta Xabier Erize EGODEko lantaldeko kidea.

- Gizartean nagusi den euskararen gaineko bortizkeria sinbolikoa gainditzeko estrategia osatu eta abian jarri, horrela hizkuntza menperatua izatearen konplexua astintzeko eta hizkuntza horretan duintasunez bizi ahal izateko.

## EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

### Merkelen eta Troikaren mendekua

Troika eta Merkel umiliaturik geratu ziren greziarrek euren neurri antisozialei uko egin zietenean erreferendumean. Bada orain, mendekua etorri da, bai herri horrekiko eta baita bere gobernuarekiko ere. Greziak lortu du Euroaren barruan egotea, lortu du baita ere zorra berregituratzea, Troiak, Merkelek eta euren kideek horretaz ezer jakin nahi ez zuten arren. Horretarako, ordea, kapitalismoaren neurri zorrotzak ezarri dituzte: lan erreforma, pentsioak jaitea eta hainbat sektore pribatizatzea, esaterako elektrikoa. Horrez gain, aktibo publikoak eta Estatuaren ondarea salgai jartzeko 50.000 milioi euroko pribatizatze funts bat eratu beharko du, erreskate berria bermatuko badu.

Eurak, hain “demokrata” direnak, Syriza barruan haustura sortu nahian dabilta eta saiatzan ari dira Greziako Gobernu mugeri Tsiprasek defendatzen duen ezkerreko posizioetatik herrialdea desastretan eraman zuen betiko eskuin neoliberalerantz. Troiak eta Merkelek, Tsiprasek ordezkatzan duen ezkerreko sistema politiko eta soziala aldatu nahi

dute, euren sistema kapitalistari esklabu leial izango zaizkion kudeatzaile politikoak jartzeko. Bere gobernu demokratikoki aukeratu duen greziar herriaren kontra benetako estatu kolpea izan da, erreferendumean erabaki baitzuen neurri horiei uko egitea. Euren inposizioen aurka inork burua altxa duenean, Troiak eta Merkelek ederki erakutsi dute zeinek agintzen duen hemen.

Greziako Parlamentuak “akordio txar baina sailhes-tezina” onartu du, Tsiprasek berak onartuta, Troikaren eta Merkelen mehatxupean. Bozketak erakutsi du Syriza barruan zatiketa dagoela –alderdiko 149 parlamentaritik 33k kontrako botoa eman zuten– eta agian hauteskundeak aurreratu beharko direla. Horixe ere bazen Troikaren eta Merkelen helburua. Datozen egunak erabakigarriak izango dira hori gertatuko denentz ikusteko. Nahiago genuke greziar intsumisioa mantenduko balitz!

Juan Mari Arregi



# «Obeditu ala lehertu»: Europako oligarkiak ez du barkatu nahi

Greziako gobernu ezkertiarrek ez zeukan kartarik Europako establishment neoliberalari enbido moduan erantzundako Oxi hari eusteko. Une erabakiorrean, François Hollandek gozo, Angela Merkelek gogor, infernua erakutsi diote Tsiprasi: estatuaren porrota, kiebra, kataklismoa. Burua makurtuta ere ez da segurua greziarrak salbatuko direnik.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

ERRENDITZEAK EZ DIZUE BALIOKO. Ez esatera ausartu zineten. Orain denari bai esateak ez zaituzte salbatuko. Bost urtez *austerizidior*z miseriara eraman ostean, itun itxurako inposaketaz bonbardatu du Europako establishmentak Grezia. Europako ezker osoak bizi du haren larruan XXI. mendeko katarsi handi hau, kalamitate berriak iragartzen dituena.

Ez itxaron Keynesi: aspaldi hil zen. Alexis Tsiprasek eta Syriza ez omen zuten programa sozialista bat aurkezten, soilik betidanik sozialdemokratek defenditu izan dituzten politiken antzeko zerbait, Krugman eta Stiglitz Nobel saridunek bermatzeko modukoa. Barack Obama bera ari zela bultzatzen Washingtondik norabide berean. Baina “*Niet*” entzun da Bruselastik.

Greziako populuaren %62k gaitzetsi duela bost urtez porrota baizik erakutsi ez duen errezeta neoliberal. Kontuz ibiltzeko geopolitikarekin, Europaren ekialdeko mugaldearekin, Turkiarekin, ultraeskuindarren mehatxuarekin... *Niet*, erantzun du Europako nomenklaturak. Edo obeditzen duzez itsu-itsuan eta orduan ere ez da segurua salbatuko zaretenik, edo hondora zoazte, suntsiketara.

*The Guardian*ek negoziaketetan zeukan korrespontsal Ian Trayno-

rrek kontatu zuen Merkel, Hollande eta Tsipras aurrez aurre geratu ziren azken bilkura-estualdiaren giroa azaltzeko Europako goi funtzionario batek alderatu ziola *bañera* tortura saio batekin.

Bost urte lehenago, 2010ean, antzeko zelada bat egin zioten New Yorken Jose Luis Rodriguez Zapaterori, Juan Jose Millas idazle ezagunak *El enigma Zapatero*-n kontatu duenez. AEBetako banku eta inbertsio funts nagusiekin bildu zen, Espainiarentzako laguntza eske. “Bilera hartan ikusi zen lehendakari konstituzional bat erruki eske *de facto*zko Gobernu bati. Jakina da harez geroztik (lehenagotik ere bai, egia esan) Zapatero hasi zela ordura arte sinesten zuenaren justu alderantzizkoa egiten”.

*Bañera*-n torturatzen duten atxilotuari gertatzen omen zaion bezalatsu, agian Tsiprasek eta Tsakalotosek sinetsiko zuten borroroei denetan *amen* sinatzearekin arinduko zitzaizela patua. Gurutze-bide oinazetsuaren geldialdia baizik ez zen, ordea.

ARGIAK uztailaren 12ko azalaren tituluetan ipini zuen: “Greziaren ezetzak Europa berritzea eskatzen du”. Hura baikortasunetik sinetsi zuenak orain gauza bera sinetsi beharko du hamabost egun beranduago ezkortasunetik. Europar

Jasper Junienek *Bloomberg* agentziarako egindako argazkian, Euklid Tsakalotos eta Alexis Tsipras uztailaren 13 goizean Europako buruzagiekin ituna sinatu ostean bilkura-tik irteten. Ordu batzuk beranduago ERT telebista publiko greziarrean mintzatu zen Tsipras: “Kapitain batek ontzia daramanean ekaitzaren erdian, egoera denik eta bortitze-na dela ere, egin dezakeen okerrena da eskifaia abandonatzea. (...) Nire erantzukizunak oso-osorik onartzen ditut, okerrak eta huts egiteak ere bai, eta nire gain hartzen dut sinesten ez dudan baina aplikatzera derrigortuta nagoen testu bat sinatu izana. (...) Kontrolik gabeko ordain eteteak ekarriko zuen banku sistema suntsitzea, deposituak desgertzea, eta diru berria inprimatu beharra, berehala debalutuko zena. 800 euro kobratzen dituen erretretadunak 800 drakma eskuratuko zituen, eta hilabeterako ordeze hiru egunetarako baizik ez zitzaion iritsiko”.

Batasunaren diseinu ekonomikoa, politikoa eta soziala errotik aldatu beharra erakusten du lokatzetan abandonatutako Greziak.

Eta hala ere, Greziari zorraren zati bat barkatu beharko zaio, beste hainbat herrialderi behin baino gehiagotan (Alemaniari barne) egin bezala. Erreferendumean “*Oxi*” defenditu zutenen argudio hura geroztik berretsi dute baita austeritate formula neoliberalaren propagandistek ere. Nazioarteko Diru Funtsek berak, horra.

Baina argudioak balio du derri-gorrezko *Grexita* defenditzen dutenentzako ere. Alemanian herritar askok (gehienek?) diotenez, pagatu ezingo dutenez, zertarako eduki bazkide? Greziarrek beren borroroe nagusitzat daukaten Wolfgang Schäublek erreparorik gabe aldarrikatu du eurotik kanporatzea aldi baterako soluzio moduan.

## Non da B plan sinesgarria?

Yanis Varoufakis finantza ministroak aitortu du publikoki hirugarren memorandum edo erreskatea hitzartzeaz at Atenasko gobernuak ez zeukala B planik. Ura pasa eta gero gutxienekoa da Varoufakisek noiz abisatu zuen eta zenbat egin zuen. Euroaren inguruan dagoen makineria erraldotik irteteko operazio konplexuak lan talde zabala eskatzen zuen,



tutako amaraunaren sendoak eta oligarkiak neoliberalismozko hamarkadotan hartu duen indar bortitzak aurrez aurre alternatibarik edukiko balin badute, haiek zulatu nahi dituztenek akademiko keynes-tarren artikulua baino zerbait zorrotzagoa erakutsi beharko dute.

Horra Grezia hiru hamarkadako miseriara kondenatua. Alemaniatik entzun da: zorraren zatirik barkatzerik ezin da aipatu, aldiz, zorra luzatzea ba omen da arintzeko modua. Ondoko hiru belaunaldiak preso harturik? Lehenago sutuko dira bazterrak. Ez dugu ikasi Adolf Hitler agintera eraman zuen Versaillesko itunaz geroztik.

Tsiprasi dimisioa ematean hau idatzi dio Nadia Valvani ministroak: “Alexis, nik baino hobeto dakizu gerra batean etsaia askoz indartsuagoa dela ikusitakoan errenditzea onartzen dela, zeure indarrak bildu eta porrotera eraman zaituzten baldintzak aldatzeko asmoz. Baina errenditze hau hain da izugarria ezen ez baitigu gure indarrak berrantolatzeko aukerarik emango. Gure sinadurak okerragotzen du burua jasotzen hasi behar zuen jende txiroaren egoera, hobi gaineko harri handi bat gertatuko da, urte luzetarako askapenerako edozein ahalmen hondatuko duena”.

Uda nahasia Grezian, udazken trumoisua Europan. Are murrizketa gehiago iragarri dira uztailean Britainia Handian. Ez dira gutxiago izanen Frantzia eta Espainian, zer esan Portugalen, Italian eta Irlandan. Nork bere burua salbatu nahian, denetan indartuz autoritarismoa eta eskuin muturra. ■

antolaketa serioa, eta ez da egon. Edo Syrizarren zuzendaritzak baloratu zuen ez zegoela *B* plan errealista batentzako tarterik.

Nork dauka, ordea, gaur Europan horrelakok *B* planik? Greziako Zorraren Egiaren batzordeko burua den Eric Toussaintek azaldu ditu bere ustez izan behar lituzkeen lerro nagusiak, baina hortik herrialde oso bateko egitura guztiak eurotik at bestelako moneta berri batean artikulatzera mendia dago.

Europako ezkerreko alderdi, sindikatu eta pertsonalitateetatik nork egingo luke apustu Toussaintek edo Varufakisek aipatu alternatibaren alde? Zenbat gehiagok, isilean bederen, aitortuko dute ados datozela Dimitris Mardas ministroarekin

esan duenean eurotik irten eta drak-mara itzultzea proposatu dutenak ilargian bizi direla?

Greziarrek kartarik ez jokorako eta etsaiak jakin. Baina Europan inork gutxi dauka autoritate morala aurpegiatzeko Syrizarreko agintariari *B* plana antolatu ez izana, hirugarren erreskate leunago bat lortzeko apustua jokatu izana Europako aginte faktikoak hain urrun iritsiko ez ziren itxaropenean. Hamarkada luzeotako ortodoxia neoliberalaren ostean zer besterik egiten du, alternatiba teorikoak aipatzez gain, Europako ezker politiko eta sindikalak?

Sare sozialak bai egon dira sutan *#ThisIsACoup* garrasika. Ez ordea kaleak. Europako instituzioek osa-



ZINKUNEGI  
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia  
T. 943 420 624  
info@zinkunegioptika.com  
www.zinkunegioptika.com

zuri begira



Xabier Letona



DANI BLANCO

## Jarrai dezagun amesten

**UPN-REN** autoritarismoa, bazterkeria, ustelkeria eta beste hainbat keria dira Uxue Barkos lehendakariaren gobernuaren zementurik eraginkorrena gaur gaurkoz. Edozener gainetik, gobernu berriak bi abantaila ditu, bereziki hastapen honetan. Bata da UPNren erregimenak normaltasunetik oso behera utzi dituela elkarbizitzaren gutxieneko balore eta praktika politikoak, eta beraz, gobernu honetako lau indarrek badute tarte esanguratsua gutxieneko horietara elkarrekin iristeko.

Gizartean aldaketaren ilusioak duen indarra da beste abantaila, eta une zailetan horrek hainbatetan behartuko ditu alderdiak bakoitzaren ikuspegia bazterreratzen eta elkarrekin aurrera egiten. Besterik gabe, alternatiba hau zapuztea larria izan daitekeelako mahaia sostengatzen duten lau hanketako edozeinentzat. Eta gainera, alternatiba orain artekora itzultzea litzatekeelako.

Baina horrek ez du lau urteko iraupena bermatuko. Edozein proiektuk ditu bere indargune eta ahuleziak, eta gobernu honek ere bai. Une honetan indargune garrantzitsuena adostu duten programa da, asmoetan aberatsa, norabide egokian finkatua eta ia 700 puntutan zehaztua.

Ahal den neurrian zehaztua, hori ere egia da. Nahi duenak berehala ikusten du bere alde ahula, funtsean aurrekontuekin bateratu gabe dagoela oraindik eta samur antzeman daitekeela arazo asko izango direla bere osotasunean betetzeko. Aldaketaren herritarrek jakin behar dute hori, ez helburu edo presioan amore emateko, baina bai lanerako eta borrokarako pazientziaz janzteko.

Iruñea-Castejon AHT proiektua geldiaraztea lorpen itzela litzateke, Geroa Baik nahi duen Euskal Y-arekiko lotura etorkizunerako utziz. Dagoen Euskararen Legearekin abiatu beharko da, baina borondatearekin aurrerapauso itzelak eman daitezke dekretu eta arauekin; “eremu ez euskaldunean” D ereduaren zabalkundea txukun egitea bera urrats erraldoia litzateke. Eta datozen sanferminean Iruñeko udal plazan biltzen direnek bertako hizkuntza ofizialean jarduteagatik alkateak txistuka ez jasotzea ere ez litzateke makala. Bide batez esanda, Gaztelu Plazako “gaixoa ni” agurrean ez litzateke halakorik pasatuko.

*Chiviteren ametsa litzateke asteleheneko abstentziotik gobernura jauzi egitea, EH Bildu kanporatzea lortu ondoren, jakina*

Eta zertan geratuko da lehen sei hilabeteetan indarrean jarri behar den oinarritzko errenta unibertsal hori? Inork ez daki, baina herritarrek berehala neurtuko du adar jotzea den, EAEko Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentaren gisako bat edo Espainiako Estatuko errentarik aurreratuen. Txikiagora begiratuta, 2015eko hondar honetan zenbat diru jasoko dute IKA eta AEKko euskaltegiek? Eta Euskalerrria irratia? Egia da, alor asko geratu dira airean programan, baina abantaila da neurrien adinako termometro daudela konparaketak egiteko.

**TENTSIORIK** ez da faltako gobernu berrian, orain arteko negozi-

zioetan falta izan ez den moduan. Aldarrikatzen den gardentasunari begira, ez litzateke pedagogia txarra herritarrei horiei buruz argiago hitz egitea, debatea alderdien barne agiritan utzi gabe. EH Bildu ez da gustura geratu Geroa Baik finkatutako gobernu ereduarekin, baina akordiora iritsi dira; ez du beste erremediorik, eta hainbatetan etsi beharko du, besteak beste, gobernu honen hausturak erraz ekar lezakeelako gobernura PSN. Hasieratik ikusi den gisan, EH Bilduk proposatutako Maria Jose Beaumont Barne sailburua izango da Gobernuaren aurkako jo puntuetako bat.

Maria Chiviteren ametsa litzateke asteleheneko abstentziotik gobernura jauzi egitea; bertatik EH Bildu kanporatzea lortu ondoren, jakina. Ezkerra eta Geroa Baiko askok ere ez lukete begi txarrez ikusiko jokaldia, EH Bildukoen presiorik gabe gobernuak askoz lasaiago egingo lukeelako ditxozoko zentralitatearen bila; baina Barkosen koalizioiko beste askok bai, badakitelako egungo PSNk erantzukizun gehiegi duela orain arteko erregimenarekin.

Etxekoaren mimetismo eginez, EAEko askok uste du Geroa Bai EAJren beso nafarra dela, baina errealitatea hori baino konplexuagoa da arragoaren baitan. Eta hala ere, seguruena ez da guztiz erraturik ibiliko pentsatzen duena Sabin Etxeak koalizioan duen eragina EAJk europar hauteskudetan Nafarroan lortutako 5.000 botoetatik harago doala. Espainiako datozen hauteskunde orokorrek ere eragin handia izan dezakete Nafarroako Gobernu berrian. Orain, alabaina, jarrai dezagun amesten ■

ASTE HONETAKO

# Zozketak



Argiako harpidedunentzat

## [f]arina



### [F]arina Jatetxea

2 pertsonentzako  
otordu bat

Urbina kalea, 5 · (Molinuevo Parkea)  
Vitoria-Gasteiz ARABA

[www.farinarestaurante.com](http://www.farinarestaurante.com) 1



### Donostiako Aquariuma

4 lagunentzako  
bina sarrera

Carlos Blasco de Imaz plaza, 1  
Donostia GIPUZKOA

[www.aquariumss.com](http://www.aquariumss.com) 2



### Leintz Gatzagako gatz museoa

2 lagunentzako  
bina sarrera

Dorletarako errepidea z/g.  
20530 - Leintz-Gatzaga

emaila: [www.leintzgatzaga.com](http://www.leintzgatzaga.com) 3



### Jorge Oteiza Fundazio Museoa

2 lagunentzako  
bina sarrera

De la Cuesta, 7  
Alzuza NAFARROA

[www.museoteiza.org](http://www.museoteiza.org) 4



### Okatxu

komikia opari

[www.argia.eus/denda](http://www.argia.eus/denda) 5

## AZKEN IRABAZLEAK (2467. Argia)

### MADDIOLA LANDETXEA

Iñaki Mundiñano Larraza (Etxarri Aranatz)

### EUREKA!

Igor Jimenez Honrado (Elorrio)  
Garbiñe Intxausti Altuna (Urruñia)

### ARTIUM

Blanca Beitia Bengoa (Gasteiz)  
Itziar Garcia Blazquez (Oñati)  
Tere Insausti Irastorza (Zaldibia)  
Jose Antonio Zubeldia Gaztañaga (Donostia)  
Blanca Lopez Garcia (Gabiria)

### IRUÑEAKO PLANETARIOA

Maritxu Dorronsoro Arostegi (Lazkao)  
Iñaki Biain Salaberria (Donostia)  
Estitxu Kortejarena Ugarte (Tolosa)

### ERLEA

Asier Alvarez De Eulate Mujika (Ordizia)





# PASOLINI

# ROMA



San Telmo  
Museoa

Erakusketa

2015  
6.20/10.4

#pasoliniroma

Antolatzaileak:

**STM**

San Telmo Museoa

donostiakultura.com



Ekizleak:

**CCCB** Centro di Cultura Contemporanea di Barcellona

abenda speciale  
**PALAEPO**



Erakunde Babesleak:



Patrono Pribatuak:



Enpresa Ongileak

